

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

10957 9/2021 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Europako Fiskaltza sortzeko Lankidetzaren Indartua ezartzen duen Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamendua aplikatzekoa.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.
Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

AURKIBIDEA

Atariko titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Lege organikoaren xedea.
2. artikulua. Aplikazio-eremua.
3. artikulua. Erreferentziak.

I. titulua. Europako Fiskaltzaren jarduna Espainiako lurraldean: egitekoak eta printzipioak.

4. artikulua. Europako fiskal delegatuak.
5. artikulua. Europako fiskal delegatuek beren egitekoak betetzeko dituzten eskudantziak.
6. artikulua. Non egin behar diren ikerketa-jarduketak.
7. artikulua. Eskumen judiziala.
8. artikulua. Berme-epailearen eskudantziak.
9. artikulua. Eskumen-arazoak.
10. artikulua. Prebentzioko jarduketak.
11. artikulua. Ikerketa-prozedurako dokumentazioa.
12. artikulua. Dokumentuen kudeaketa.
13. artikulua. Komunikazioen eta kontsulten araubide orokorra.

II. titulua. Europako Fiskaltzaren eta Europako Fiskal Delegatuen Estatutua.

14. artikulua. Europako fiskala eta Europako fiskal delegatuak izendatzeko hautapena.
15. artikulua. Europako fiskal delegatuen egoera administratiboa.
16. artikulua. Europako Fiskaltzaren Bulegoa eta Europako fiskal delegatuei laguntzeko baliabideak.

III. titulua. Europako Fiskaltzaren ikerketa-prozedura.

I. kapitulua. Ikerketa-prozedura hasia.

17. artikulua. Europako Fiskaltzaren ikerketa-prozeduraren zuzendaritza eta trebakuntza.
18. artikulua. Europako fiskal delegatuen ikerketa-prozeduraren hasiera.
19. artikulua. Prozedura eskumena bereganatzeko eskubidearen bidez hasia.
20. artikulua. Europako fiskal delegatuek eskumena erabiltzea.

- 21. artikulua. Eskumena agintaritza nazionalari itzultzea.
- 22. artikulua. Agintaritzen arteko komunikazioa.
- 23. artikulua. Prozedura hasteko dekretua.
- 24. artikulua. Ikerketaren ardura daukan Europako fiskal delegatua.
- 25. artikulua. Berme-epailea ezartzea eta prozedura beste estatu batetik berresleitzea, pilatzea eta zatitzea.

II. kapitulua. Ikertutako pertsonak esku hartzea.

- 26. artikulua. Ikertutako pertsonaren eskubideak.
- 27. artikulua. Karguen berri emateko lehen agerraldia.
- 28. artikulua. Lehen agerraldia atxilotetetan.
- 29. artikulua. Lehen agerraldia atzeratzea.
- 30. artikulua. Ikertutako pertsonaren deklarazioa.
- 31. artikulua. Ikertutako pertsonak deklaratzeko eta gertatutakoa aitortzea.
- 32. artikulua. Prozedura eskuratzea.
- 33. artikulua. Eginbideak proposatzea.
- 34. artikulua. Zuribide-elementuak aurkeztea.
- 35. artikulua. Ikerketa-egintzetan parte hartzea.

III. kapitulua. Akusazio partikularrak esku hartzea.

- 36. artikulua. Akusazio partikularra pertsonatzea.
- 37. artikulua. Akzio zibila erabiltzea.
- 38. artikulua. Prozedura eskuratzea.
- 39. artikulua. Eginbideak proposatzea.
- 40. artikulua. Informazioa ematea.
- 41. artikulua. Ikerketa-egintzetan parte hartzea.

IV. kapitulua. Europako fiskal delegatuaren ikerketa-eginbideak.

- 42. artikulua. Europako fiskal delegatuen ikertzeko ahalmena.
- 43. artikulua. Lekukoaren deklarazioa.
- 44. artikulua. Perituaren irizpena.
- 45. artikulua. Lekukoak eta perituak babestea.
- 46. artikulua. Toki itxian sartzeko eta miatzeko.
- 47. artikulua. Pertsona juridikoaren etxean sartzeko eta miatzeko.
- 48. artikulua. Komunikazioak bidean atzemateko eta ikerketa teknologikorako neurriak.
- 49. artikulua. Datuen kontserbazioa.
- 50. artikulua. Zaintzapean entregatzea.
- 51. artikulua. Mugaz haraindiko ikerketak.

V. kapitulua. Kautelazko neurri errealak.

- 52. artikulua. Kautelazko neurri errealen helburua eta xedea.
- 53. artikulua. Diru-erantzukizunak ziurtatzeko neurriak.
- 54. artikulua. Pertsona juridikoei eta beste entitate batzuei aplikatu ahal zaizkien kautelazko neurriak.
- 55. artikulua. Hirugarren erantzule zibilei aplikatu ahal zaizkien kautelazko neurriak.
- 56. artikulua. Legitimazioa.
- 57. artikulua. Prozedura.
- 58. artikulua. Ebazpena.
- 59. artikulua. Ordezko kauzioa.
- 60. artikulua. Handitzea eta txikitzea.
- 61. artikulua. Konfiskatutako ondasunak behin-behinean erabiltzea eta alde aurretik diru bihurtzea.
- 62. artikulua. Ondasunak itzultzea.
- 63. artikulua. Aurkaratzeko eta errekurtsioak aurkezteko araubidea.

- IV. titulua. Ikerketaren kontrol judiziala.
- I. kapitulua. Sekretuaren deklarazioa.
64. artikulua. Kasuak.
65. artikulua. Ebazpena.
66. artikulua. Luzapena.
67. artikulua. Sekretuaren araubidea.
68. artikulua. Sekretua kentzea.
- II. kapitulua. Epailearen baimena ikerketa-eginbideak egiteko.
69. artikulua. Eginbidea eskatzeko legitimazioa.
70. artikulua. Europako fiskal delegatuaren eskaera.
71. artikulua. Ebazpena.
72. artikulua. Luzapen-eskaera.
73. artikulua. Gertaera edo pertsona gehiago ikertzea.
74. artikulua. Neurria aplikatzea eta epaileak gainbegiratzea.
75. artikulua. Neurria etetea.
76. artikulua. Ikertutako pertsonari jakinaraztea.
- III. kapitulua. Kautelazko neurri pertsonalak ezartzeko eta luzatzeko prozedura.
77. artikulua. Kautelazko neurri pertsonalak.
78. artikulua. Atxilotzea.
79. artikulua. Legitimazioa.
80. artikulua. Eskaera.
81. artikulua. Alderdien agerraldia.
82. artikulua. Ebazpen judiziala.
83. artikulua. Presazko kasuak.
84. artikulua. Atxiloketetako arau bereziak.
85. artikulua. Sekretuaren deklarazioa eta behin-behineko espetxealdia.
86. artikulua. Neurrien kontrol judiziala.
87. artikulua. Neurriak ez betetzea.
88. artikulua. Ikerketa-prozeduran ezarritako neurriak azkentzea.
89. artikulua. Apelazio-errekurtsoaren berezitasunak behin-behineko espetxealdiari dagokionez.
- IV. kapitulua. Europako fiskal delegatuaren dekretuak aurkaratzea.
90. artikulua. Kasuak.
91. artikulua. Prozedura.
- V. kapitulua. Berme-epailearen autoen kontrako apelazio-errekurtsoa.
92. artikulua. Organo eskuduna.
93. artikulua. Errekurtsoa aurkeztu ahal zaien ebazpenak.
94. artikulua. Aurkezteko modua eta epealdia.
95. artikulua. Prozedura.
- VI. kapitulua. Froga-iturriak ziurtatzeko intzidentea.
96. artikulua. Intzidentearen xedea eta intzidentea bidezkoa den kasuak.
97. artikulua. Eskumena.
98. artikulua. Legitimazioa.
99. artikulua. Akusazioen eskaera ikerketan.
100. artikulua. Eskaera-idazkia.
101. artikulua. Alderdien alegazioak.
102. artikulua. Ebazpena.

- 103. artikulua. Presazko kasuak.
- 104. artikulua. Froga-iturria ziurtatzea.
- 105. artikulua. Dokumentuan jasotzea.
- 106. artikulua. Ziurtatutako froga zabaltzeko intzidentea.

V. titulua. Ikerketa-prozedura amaitzea.

I. kapitulua. Agintaritza nazionalera bidalita amaitzea.

- 107. artikulua. Eskumenik eduki ez eta jarduketak agintaritza nazionalera bidaltzea.
- 108. artikulua. Prozedura moldatzea.

II. kapitulua. Ikerketa amaitzea.

- 109. artikulua. Prozedura amaitzeko dekretua.
- 110. artikulua. Adostasuna.
- 111. artikulua. Ekintza bidezkoa izan ez eta prozedura artxibatzea.
- 112. artikulua. Agintaritzen arteko kontsulta prozedura artxibatu aurretik: kasuak.
- 113. artikulua. Ikerketa-prozedura berriz irekitzea.

VI. titulua. Tarteko fasea: ahozko epaiketa prestatzea.

I. kapitulua. Akusazio-idazkia.

- 114. artikulua. Akzio penala baliatzea.
- 115. artikulua. Akusazioen behin-behineko kalifikazioa.
- 116. artikulua. Froga proposatzea.

II. kapitulua. Defentsa-idazkia.

- 117. artikulua. Defentsa-idazkia.
- 118. artikulua. Akusazioa aurkaratzea sustatzen duen idazkia.
- 119. artikulua. Defentsaren behin-behineko kalifikazioa.
- 120. artikulua. Froga proposatzea.

III. kapitulua. Atariko entzunaldia.

- 121. artikulua. Defentsa-idazkiak alderdiei helaraztea.
- 122. artikulua. Atariko entzunaldia.

IV. kapitulua. Largespena.

- 123. artikulua. Largesteko arrazoiak.
- 124. artikulua. Largesteko autoa.
- 125. artikulua. Errekurtsuak.
- 126. artikulua. Largespenaren ondorioak.

V. kapitulua. Ahozko epaiketa hastea.

- 127. artikulua. Ahozko epaiketa hasteko autoa.
- 128. artikulua. Ahozko epaiketaren espedienterako lekukotzak eta epatzea.
- 129. artikulua. Ahozko epaiketan deklarazio eta eginbide polizialak debekatzea.
- 130. artikulua. Alderdiek ahozko epaiketan erabiltzeko lekukotzak.
- 131. artikulua. Alderdiei epaiketaren ardura daukan auzitegira deitzea.

Lehenengo xedapen gehigarria. Arau-aipamenak.

Bigarren xedapen gehigarria. Gizarte Segurantzaren araubidea.

Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra.

Azken xedapenetako lehenengoa. Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako bigarrena. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzea.

Azken xedapenetako hirugarrena. Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoa aldatzea.

Azken xedapenetako laugarrena. Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzea.

Azken xedapenetako bosgarrena. Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako seigarrena. Lege arruntaren izaera duten maniak.

Azken xedapenetako zazpigarrena. Eskumen-titulua.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Ordezko araubidea.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Indarrean jartzea.

ATARIKOA

I

Lege honetan arautzen da nola aplikatuko zaion Espainiako ordenamenduari Kontseiluaren (EB) 2017/1939 Erregelamendua, 2017ko urriaren 12koa, Europako Fiskaltza sortzeko lankidetzaren indartua ezartzen duena. Legeak, hain zuzen ere, erregelamendu horretako xedapenak osatzen ditu eta araubide berezi bat ezartzen Europako fiskal delegatuek Europako arauaren arabera beren ardurapekoak diren delituak ikertu ditzaten.

Batasun osoaren helburuetako bat askatasun-, segurtasun- eta justizia-eremu bat eraikitzea da (horren sorburua 1997ko *Corpus Iuris* da). Horregatik, EBFT Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 86. artikuluan eta 325. artikuluan berariaz ezartzen da Europako Fiskaltza sortzeko lege-oinarria. Europako Fiskaltza Batasuneko estatu guztietarako organoa izango da, baina independentea; Batasunaren finantza-interesei eta, beraz, Batasuneko herritar guztien interesei kalte egiten dieten delituen kontra borrokatzeko sortuko da hasiera batean.

Urteetan negoziatzen ibili ondoren, asmo hori lankidetzaren indartuaren prozeduraren bidez gauzatu da, eta EBFTren 5. artikuluan ezartzen den subsidiariorotasun-printzipioa esplizituki irudikatzea dakar. Izan ere, Europar Batasunaren aurrekontuen kontura egiten den iruzurraren kontra arrakastaz borrokatzeko, Batasuneko estatuaren sistema juridikoen arteko desberdintasunak gainditu behar dira, eta horretaz jabetuta sortu zen Europako Fiskaltza sortzeko asmoa.

Nazioz haraindiko ustelkeriaren eta kriminalitate antolatuen kontrako borrokaren esparruan, Europar Batasunak eta bertako estatuak sarritan egin behar izaten diete aurre interes kolektiboak eragiten dieten iruzur-kasu gaitzei; esaterako, Europar Batasunaren egitura-funtsetan egiten diren iruzurrei eta balio erantsiaren gaineko zergaren mugaz haraindiko iruzur handiei.

Europako Fiskaltzaren egitekoa nazioz haraindiko finantza-ikerketak konplexuak eraginkorki egitea da. Horretarako, erabateko independentzia organiko eta funtzionaleko organoa da, bere barne-araubidea egin eta onets dezake eta goi-mailako erabakitze gaitasuna dauka bere jardun-eremuaren barruan zigor-arloko prozesuak abiarazteko, inoren agindurik ez jarraibiderik hartu gabe, ez Batasunarenik, ez Batasuneko estatuoenik. Gainera, bere helburuak lortzeko, kontuan hartu behar da Europako Fiskaltzak lankidetzaren jardun behar duela dagoeneko lanean ari diren Batasunaren agentziekin, organismoekin eta organoekin; Europolekin, esaterako. Halaber, iruzurraren aurkako Europako Bulegoak egiten duen lana osatuko du eta horren egiteko batzuk hartuko ditu, eta harreman estuak ezarri beharko ditu Eurojustekin, elkarri laguntzea oinarritzat hartuta.

Antolaketaz denaz bezainbatean, erakunde berriaren egitura bi maila egongo dira: bata zentrala eta bestea deszentralizatua; biek edukiko dituzte ikertzeko ahalmena eta akzio penala egikaritzeko ahalmena. Maila zentrala bulego nagusia da, eta bulego hori hauek osatzen dute: Kolegioak, sala iraunkorrek, Europako fiskal nagusiak, Europako

fiskal nagusiari atxikitako fiskalek, Europako fiskalek eta zuzendari administratiboak. Kolegioan honako hauek izango dira: Europako fiskal nagusia eta Europako fiskal bat Batasuneko estatu bakoitzeko. Maila deszentralizatuan, Europako fiskal delegatuak ariko dira, eta horiek Batasuneko estatuek izendatuko dituzte.

Europako Fiskaltzako Espainiako lanpostuak eta Europako fiskalen eta Europako fiskal delegatuen lanpostuak eskuratzeko modua honako hauetan arautzen da: alde batetik, 37/2019 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, zeinaren bidez sortzen baita Europako fiskala izateko hiru hautagaiak eta Espainian ariko den Europako fiskal delegatua izateko hautagaiak hautatzeko batzordea, eta horiek izendatzeko prozedura arautzen baita (lanpostu horiek Europako Fiskaltza sortzeko lankidetzaren indartua ezartzen duen Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduaren 16. eta 17. artikuluetan aipatzen dira); bestetik, errege dekretu hori garatzen duten ministro-aginduek (arau honen II. kapituluaren ezartzen dena garatzen dute).

Europako Fiskaltzaren egitekoa Europar Batasunaren finantza-interesen kontrako delituak ikertzea eta, behar denean, egileak akusatzea da. Eskumen-eremu objektiboa hori izanik, ikuspegi substantibotik berariaz aipatzen dira (EB) 2017/1371 Zuzentarauaren ezartzen diren delituak, bai eta horiekin guztiz lotutako delituak ere ((EB) 2017/1371 Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko uztailaren 5ekoa, Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dien iruzurraren kontra Zigor Zuzenbidearen bidez borrokatzeari buruzkoa; PIF zuzentaraua deritzona). Zuzentzara horren transposizioa egin eta Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzeko, 1/2019 Lege Organikoa onetsi zen: 1/2019 Lege Organikoa, otsailaren 20koa, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena finantzen eta terrorismoaren eremuetako Europar Batasunaren zuzentzararen transposizioa egiteko eta nazioarteko arazoei ekiteko. Erreforma horren bidez, iruzur horiek modu harmonizatuan arautzen dira, 12/1995 Lege Organikoarekin bat etorritik (12/1995 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, Kontrabandoa Zigorrezkoa).

Zehaztapen bat egin behar da: Europako Fiskaltza erregelamendu bidez arautzen da eta horrek zuzeneko eragina dauka Batasuneko estatuetako ordenamenduetan; hala ere, estatuetako sistema prozesalari moldatu behar da eta haietan txertatu behar da, eta horregatik ezarri zen erregelamenduan bertan epe luze bat indarrean jartzen zenetik benetan aplikatzen hasterako.

Gure sistematan egin beharreko doikuntzak oso konplexuak dira, instrukzio judiziala gaur egun oso berezia baita. Erregelamenduak ezartzen duen eredu bat dator Batasuneko estatu gehienetan erabiltzen denarekin. Eredu horretan, ikerketa penala zuzentzea Europako Fiskaltzari dagokio, eta berak erabaki dezake hura amaitzea eta akzio penala egikaritzen jarraitzea edo ez. Horrenbestez, erregelamendu horretan ezartzen diren figurak Espainiako legedian txertatu behar dira, antinomiak saihestuta, gure sistema prozesala Europako erakunde berriarekin lotzeko.

II

Europako Fiskaltza sortzeko lankidetzaren indartua ezartzen duen Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamendua behin betiko bultzada eman dio Espainiako zigor-arloko prozesuaren egiturazko erreformari.

Europako Fiskaltza berezko nortasun juridikoa daukan organo bat da, eta aipatutako erregelamenduak 11. zuzenbideko oinarrian egiteko hau esleitzen dio: «Europar Batasunaren finantza-interesen kontrako delituak egiten dituztenak ikertzea, auzipetzea eta epaitzea». Erregelamenduaren 15. zuzenbideko oinarrian honako hau argitzen da: «Erregelamendu honek ez dauka eraginik Batasuneko estatuetako sistema nazionalen zigor-arloko ikerketak antolatzeke moduari dagokionez». Egiaz, adierazpen horrek akusazioaren eredu batzuetarako baino ez du balio, delituen ikerketak zuzentzeko lanak eta ikertutako pertsonen oinarriko eskubideak bermatzeko lanak heterogeneoak izanik bereizi egin behar diren horietarako. Bi egiteko horiek agintaritzaren publiko berak dauzkan herrialdeetan (Espainian, kasurako) Europako Fiskaltza ezarriko bada, ezinbestekoa da

beste sistema prozesal bat eratzea; instrukzio judizialaren ordezkotako eredu bat, alegia. Eredu berriak aukera eman behar du Europako fiskal delegatuak ikertzeko eta akzio penala abiarazteko egitekoak bere gain har ditzan eta, aldi berean, agintaritza judizial nazional batek, hirugarren inpartzialaren estatusa duenak, oinarrizko eskubideak babes ditzan.

III

Lege organiko honek dakarren erreforman lege organikoak aldatzen dira eta prozesuari baino eragiten ez dioten neurriak ezartzen dira. Kasu honetan, maila arrunteko manuek mui organikoa garatzen dute, aldatzen diren arauen loturaren funtsa baita Europako fiskalaren eta Europako fiskal delegatuaren figurak gure ordenamenduan txertatzea eta ordenamendua figura horietara moldatzea, estatutuei eta prozesuei dagozkien alderdiei bide emateko eta berme-epaileak esku hartu ahal izateko eta oinarrizko eskubideei eragiten dietela-eta eta oraingo Prozedura Kriminalaren Legeak xedatzen duenaren arabera epailearen baimena behar duten neurriak hartzeko. Beraz, beharrezkotzat jotzen da araugintzako tresna berean sartzea.

Estatu Kontseiluak doktrina hura berretsi zuen 1998ko ekainaren 18ko 2.268/98 irizpenean, 1998ko uztailaren 20ko 2.486/98 irizpenean, 2001eko maiatzaren 9ko 1.945/2001 irizpenean eta 2013ko apirilaren 18ko 172/2013 irizpenean: «Baldin eta lege organiko batean printzipioz legearen gaiari ez dagozkion aurreikuspenak edo gai horretatik kanpokoak sartzen badira beharrezkoa den osagarri gisa (*rectius*, berezko garapena), Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera (otsailaren 13ko 15/1981 epaia eta abuztuaren 15eko 76/1983 epaia, besteak beste), bidezkoa da Konstituzioaren 81. artikuluan ezartzen den eremuaz kanpoko gaiak arautzea lege organiko horrek, baina oso zorrotz, eta, betiere, manuak organikoak ez direla zehaztuta».

Alde batera utzirik nolako eragozpen juridikoak dauden lege-erreserba (Konstituzioaren 53.1 artikuluan ezartzen dena) zehazteko oinarrizko eskubideak arautzeko, ez dirudi eztabaidan jar litekeenik horren esanahia eta irismena bat datozela Konstituzioaren 81.1 artikuluan arabera eskubide horiek «garatzeko» beharrezkoa den erreserba organiko zorrotzagoarekin. Horregatik, zigor-arloko prozesura iristen diren oinarrizko eskubideen alderdiei, haien edukia «garapentzat» jotzen direnei aplikatzen zaie bakar-bakarrik Konstituzioaren 81.1 artikuluko lege-erreserba. Horiek nola erabili behar diren lege arrunten bidez arautu behar da.

Hori dela eta, zehaztu behar da zeintzuk diren organikoak eta zeintzuk arruntak. Honako hauek arruntak dira: I. titulua (7., 8. eta 9. artikulua ez beste guztiak); II. titulua; III. titulua (26., 46., 47. eta 48. artikulua ez beste guztiak); IV. tituluko 67., 70., 73-76., 79-81., 87. eta 88. artikulua; V. titulua; VI. titulua; bigarren xedapen gehigarria; xedapen iragankor bakarra; azken xedapenetako lehenengoa eta bosgarrena.

IV

Arauan atariko titulu bat dago (bertan xedeari eta aplikazio-eremuari buruzko xedapen orokorrak biltzen dira eta interpretazioa argitzeko klausula bat dago), eta, horrez gainera, sei titulu. Era berean, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta bederatzi azken xedapen daude.

Aplikatu diren irizpideak printzipio hauetan oinarritu dira: erregulazio onaren printzipioa, premiaren eta efikaziaren printzipioak barnean direla (erregelamenduaren testuaren transposizioa fideltasunez egin baita eta egungo araudia antinomiarik gabe erreformatu baita); proportzionaltasunaren printzipioa, betebeharrari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa ezartzen baita; segurtasun juridikoaren printzipioa, asmoa Estatuaren *ius puniendi* delakoa erabiltzeko arauak biltzen dituen arau-esparru egonkorra, aurreikusgarria, integratua eta argia edukitzea baita.

Atariko tituluan, klausula orokor bat nabarmentzen da, osagarria: haren arabera, lege organiko honetan berriaz arautzen ez den guztian Prozedura Kriminalaren Legearen prozedura-arauak aplikatuko dira, batez ere prozedura laburrari buruzko arauak. Nolanahi

ere, Europako Fiskaltzaren eskumeneko delituetako bat edo aipatzen den beste delituren bat egiten denean dagokion zigorra ezarriko da. Azken erreferentzia hori dela-eta, prozedura hauen xede materialaren espezializazio teknikoa aintzat hartuta, epaitze-organo profesionala hautatu da, alde batera utzita Zinpeko Epaimahaiari buruzko maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoaren bideak.

I. tituluan, Europako Fiskaltzak Espainiako lurraldean dituen egitekoak eta bertan jarduteko printzipioak zehazten dira. Hain zuzen ere, sarrera gisako titulu horretan, erregelamenduak ezarritako oinarritzko ildoak finkatzen dira, eta ikerketa-prozedura berriak (oraindik diseinatu gabe dago) Espainian nola behar duen zehazten da.

Gaia argitu nahian, eskumen-eremua mugatzen duten erregelamenduko manuak txertatzen dira, eta, horrez gainera, PIF zuzendariauen transposizioan aipatzen diren delituekin lotzen dira, berariaz arauetara bidaliz.

Gainera, Europako fiskal delegatuek beren ahalmena baliatzeko behar dituzten eskudantziak onartzen dira.

Sarrera gisakoa denez gero, titulu horretan txertatzen da berme-epailearen figura berria. Berme-epailea prozeduraren zuzendaritzaz kanpo egongo da, baina, hala ere, arauan berariaz ezartzen diren jurisdikzio-kontrolaren egitekoak edukiko ditu. Eskudantzia horiek funtsezko lotura dute oinarritzko eskubideak murrizten dituzten ikerketa-neurriak ezartzearekin, presaz ezarritako kautelazko neurriak ezartzearekin edo berrestearekin, eta frogaiturriak ziurtatzeko intzidentearekin, besteak beste.

II. tituluan, ez dira berriz aipatzen erakunde horren estatutu-printzipioak, erregelamenduan biltzen baitira, eta behar hauek ezartzen dituzten arauak txertatzea erabaki da: Europako fiskal delegatuek independentziarekin jardun beharra beren betebeharreran, Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunean aldarrikatzen diren eskubideak nahitaez errespetatu beharra, eta beren jarduera guztietan legez, proportzionaltasunez eta inpartzialtasunez aritu beharra. Gainera, gero erregelamendu bidez garatu ahal izango badira ere, Europako fiskala eta Europako fiskal delegatuak hautatzeko irizpide objektiboak eta egokitasun-irizpideak ezartzen dira, bai eta hautapen-prozesua ere. Horiek izendatzea Europako erakundearen eskumena da. Halaber, leku egiten zaio Espainiako fiskal eta magistratuak Europako fiskal izendatuz gero horiek zeregin horretan jarduteko esparruaren administrazio-araubideari.

III. tituluan, argi sistematizatu behar da, funtsezkoa baita, zer espezifikotasun agintzen dituen erregelamenduak ikerketa-prozedura hau hasteari buruz. Kontuan eduki behar da erregelamenduak ezartzen duen sistema Europako Fiskaltzak eta agintaritzaren nazionalen eskumen berak dituztela. Horren arabera, Europako fiskal delegatuek Batasunaren finantza-interesei kalte egiten zaien arau-hausteetan erabiltzen dute beren eskumena, eta, beraz, beste kasu batzuetan agintaritzaren nazionalen egiten duten lana egiten dute, eta agintaritzaren horiek hor ezin dute erabili eskumen hori.

Horretarako, beharrezkoa da aurretik agintaritzaren nazionalen arteko komunikazio-sistema sortzeko modua egitea, Europako Fiskaltzaren eskumenean esparruan sar litezkeen egitateen berri izan baitezakete agintaritzaren horiek beren egitekoetan ari direla. Arautzen da nola hasiko den prozedura Europako Fiskaltzak eskatuta eta nola eskumena bereganatzeko eskubidearen bidez. Horrez gainera, zehazten da Europako Fiskaltzaren eta agintaritzaren nazionalen arteko komunikazioak nolakoak izan behar diren erregelamenduak eskumena norena den zehaztu aurretik komunikazioak edo kontsultak egin behar direla ezartzen duen gaietan. Prozedura honen eta gure sistema tradizionalaren arteko desberdintasun hau nabarmendu behar da: gure sisteman, aztertzen den delituaren muga penologikoek markatzen dute eskumena, modu abstraktuan; aldiz, prozedura honetan, eskumena sistema dinamikoren bidez esleitzen da azkenean, eta erregelamenduak berak zehazten du agintaritzaren nazionalak izendatu behar diren prozesuak nondik nora jo behar duen zehazteko.

Halaber, titulu honetan sartzen dira Europako fiskal delegatuen zuzendaritzapeko ikerketa-sistema berriak berekin dakartzan prozedura-berrikuntzak —esaterako, mugaz harandiko frogaren espezialitateak—; sistema horretan, ez da batere murrizten defentsa-

eskubideen bermea, eta berme-epaileak zainduko du hori, eskubideoi eragiteko arriskua dagoen heinean.

Beste alde batetik, politika kriminaleko aukera modura, prozedura erregelamendua aplikatzen den herrialdeekin harmonizatu nahian, bazter uzten da herri-akusazioaren legitimazio aktiboa.

Hala ere, bestetik, nahiz eta erregelamenduan ez aipatu berariaz *ex delicto* erantzukizun zibilaren gaia, Batasuneko estatuen legediak harmonizatzeko gutxieneko estandarrak ezarri behar diren ondorioz, gure prozedura-ereduak aukera ematen du iruzurrez bereganatutako funts publikoak berehala berreskuratzeko, aldi berean prozedura penalak aurrera egiten duela, eta hori balio erantsia da. Hori bat dator erregelamenduaren 107. zuzenbideko oinarrian eta 41.3 artikuluan ezarritakoarekin: «Europako Fiskaltzaren prozesuetan parte hartzen duten beste pertsona batzuek aplikatzen den legedi nazionalak ematen dizkien eskubide prozesal guztiak edukiko dituzte». Horregatik, bai Europako fiskal delegatuak, bai pertsonatzen diren akusazio partikularrak legitimatuta egongo dira akzio zibilean eta akzio penalean batera aritzeko.

IV. tituluak, erregelamenduak eraginkortasuna bermatu nahi dien ikerketa-eginbideen eta ziurtatze-eginbideen eta kautelazko neurrien berezitasunak ageri dira. Hain zuzen ere, delituen izaeraren arabera berezitasunak zehazten dira, eta arreta berezia ematen zaie gauzak, ondasunak edo haien tresnak ziurtatzeko eta, behar denean, konfiskatzeko eginbideei, bai eta froga-iturriak ziurtatzeko intzidenteari ere.

V. tituluak funtsezkoa da, berrikuntza baitakar gure tradizio prozesalera. Titulu horretan, ikerketaren amaiera arautzen da, bi kasu ezarrita: agintaritzaren nazional batera bidaltzea, prozedura arruntaren izapideekin jarraitzeko, edo, bestela, tarteko fase batean sartzea eta berme-epailearen jurisdikzio-kontrola aplikatzea.

Azkenik, VI. tituluak, tarteko fasea arautzen da; ahozko epaiketa prestatzea, hain zuzen. Zenbait kapitulu garrantzitsutan, gai hauek arautzen dira: akusazio-idazkia eta defentsa-idazkia, atariko entzunaldia, largespena, eta ahozko epaiketa hastea.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Lege organikoaren xedea.*

Lege organiko honetan arautzen da nola aplikatu behar zaion Espainiako ordenamendu juridikoari Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamendua, Europako Fiskaltza Sortzeko Lankidetzaren Indartua ezartzen duena.

2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Lege organiko honen xedapenak Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dieten delituengatik hasten diren prozedura penalei aplikatuko zaizkie, Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduaren arabera Europako Fiskaltzak ikertzeko, akusatzeko eta epaiketan akusazio moduan jarduteko eskumena erabiltzen duenean.

2. Lege organiko honetan arautzen ez den guztirako Prozedura Kriminalaren Legeak ezartzen duena aplikatuko da, prozedura laburrari buruz xedatzen duena batez ere, ikertzen den delitua edo hari dagokion zigorra gorabehera.

3. artikulua. *Erreferentziak.*

1. Lege organiko honetan Europako fiskal delegatuak aipatzen direnean, testua Europako fiskalaz ari da, baldin eta Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduaren 28.4 artikuluan arabera hark haien eskumen berak badauzka.

2. Lege organiko honetan erregelamendua aipatzen denean, testua erregelamendu honetaz ari da: (EB) 2017/1939 Erregelamendua, 2017ko urriaren 12koa, Kontseiluarena, Europako Fiskaltza Sortzeko Lankidetzaren Indartua ezartzen duena.

I. TITULUA

Europako Fiskaltzaren jarduna Espainiako lurraldean: egitekoak eta printzipioak

4. artikulua. *Europako fiskal delegatuak.*

1. Europako fiskal delegatuek eskumena dute, Espainiako lurralde osoan, ikerketak egiteko eta lehen auzialdiko eta errekurtsio-bideko prozedura-organo eskudunean akzio penala gauzatzeko Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dien delituen bat egiten dutenen eta horiekin batera ari diren gainerakoen kontra, Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduaren 4., 22., 23. eta 25. artikuluekin bat etorritik, delituaren kalifikazio juridikoa gorabehera.

2. Hain zuzen ere, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoan tipifikatutako delitu hauetan dute ikerketak egiteko eta akusazioa gauzatzeko eskumena:

a) Batasunaren Ogasunaren aurkako delituak, zerga nazionalen ez dagozkienak; 305., 305 bis eta 306. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren baliabide propioen ondoriozko diru-sarrerei dagokienez, Europako fiskal delegatuak kasu honetan soilik izango dira eskudun: gertaerak Batasuneko bi estaturekin edo gehiagorekin lotuta daudenean eta, gainera, guztirako kaltea gutxienez 10 milioi eurokoa denean.

b) Europako dirulaguntzetan eta laguntzetan egiten den iruzurra, 308. artikulua.

c) Kapitalak zuritzea, Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dien delitu batetik datozen ondasunei eraginez gero; eroskeria, Batasunaren finantza-interesei kalte eginez gero edo kalte egiteko arriskua izanez gero; bidegabeko eralgitzea, Batasunaren finantza-interesei nolabait kalte eginez gero.

Horrez gainera, Kontrabandoa Zigorretako abenduaren 12ko 12/1995 Lege Organikoan tipifikatzen diren delituak, Batasunaren finantza-interesei kalte eginez gero.

d) Erakunde kriminal batean parte hartzea (10/1995 Lege Organikoaren 570 bis artikulua), baldin eta horren jardura nagusia aurreko apartatueta aipatzen diren delituetako bat egitea bada.

3. Aurreko apartatuaren lehen hiru letretan aipatzen diren delituekin ezinbestean lotutako delituak ere Europako fiskal delegatuen eskumenekoak izango dira, erregelamenduan ezartzen denarekin bat etorritik. Nolanahi ere, eskumena erregelamenduaren 25.3 artikuluan ezartzen den bezala erabiliko da.

5. artikulua. *Europako fiskal delegatuek beren egitekoak betetzeko dituzten eskudantziak.*

1. Lege organiko honetan ematen zaizkien egitekoak betetzeko, Europako fiskal delegatuek laguntza eska diezaiekete denetariko agintaritzari eta haien agenteei.

Europako fiskal delegatuek beren ahalmenak erabiliz laguntza eskatzen badiete agintaritzari, funtzionarioei, organismoei edo partikularrei, horiek jaramon egin beharko diete nahitaez, legeen mugen barruan. Halaber, eta aurreko mugapen berekin, Europako fiskal delegatu batek aginduz gero, haren aurrera agertu beharko dute.

Laguntza eskatzen zaien agintaritzen eta Europako fiskal delegatuen arteko harremanak, nolahi ere, erakunde nazionalen eta Europako Fiskaltzaren artean lankidetzaren leial eta aktiboa izateko betebeharrarekin bat etorritik bideratu behar dira.

2. Beren egitekoetan ari direla, Europako fiskal delegatuek kasu bakoitzean dagozkien aginduak eta jarraibideak eman diezazkiekete Polizia Judizialeko funtzionario guztiei.

3. Europako fiskal delegatuek ezin diete eman jarraibiderik Fiskaltzako kideei.

Hala ere, laguntza eska diezaiekete jarduketara jakin batzuetarako; horretarako, Estatuko Fiskaltza Nagusira jo beharko dute.

6. artikulua. *Non egin behar diren ikerketa-jarduketak.*

1. Ikerketa-prozedurako jarduketak Europako fiskal delegatuen egoitza dagoen lekuan egingo dira. Hala ere, ikerketarako beharrezkoa edo komenigarria denean, Europako fiskal delegatuak lurraldeko edozein tokitan eratu ahal izango dira jarduketa horiek egiteko.

2. Ikertutako pertsonak Europako fiskal delegatuaren egoitzan deklaratu du beti. Ikertutako pertsonak urritasun fisikoren bat badauka eta ezin bada joan egintzara, Europako fiskal delegatuak haren etxebizitzan edo dagoen tokian eratu dezake bere egoitza, galdeketak haren osasuna arriskuan jartzen ez badu.

3. Lekukoek eta perituek ere Europako fiskal delegatuek egoitza eratu duten bulegoetan deklaratu behar dute. Hala ere, Europako fiskal delegatuak, beste nonbait bizi bada, erabaki hauetako bat har dezake, ikertu beharreko egitateen larritasunaren arabera:

- a) laguntza eskatzea eginbidea egiten den tokiko fiskalari;
- b) deklarazioa bideokonferentziaz egitea;
- c) ikertutako pertsona dagoen tokira joatea beraren deklarazioa jasotzeko.

7. artikulua. *Eskumen judiziala.*

1. Auzitegi Nazionalak eskumena dauka lege organiko honetan arautzen diren prozedurez arduratzeko eta prozedura horiek epaitzeko.

Forurik egonez gero, eskumena Auzitegi Gorenak edo Justizia Auzitegi Nagusiak edukiko du, kasuan kasukoak.

2. Organo judizial horietan berme-epaile bana egongo da.

8. artikulua. *Berme-epailearen eskudantziak.*

Lege organiko honek arautzen dituen prozeduretan, berme-epaileak egiteko hauek ditu:

1.a Baimena ematea oinarrizko eskubideren bat murrizten duten ikerketa-eginbideak egiteko, legean ezartzen denarekin bat etorritik.

2.a Agintaritza judizialek baino ezarri ezin dituzten kautelazko neurriak ezartzea.

3.a Froga-iturri pertsonala ziurtatzea galtzeko arriskua dagoenean.

4.a Baimena ematea ikerketa sekretupean edukitzeko eta sekretuari eusteko.

5.a Ahozko epaiketa hasteko edo largesteko erabakia hartzea, lege organiko honetan ezartzen denarekin bat etorritik.

6.a Europako fiskal delegatuaren dekretuen aurkaratzeak ebaztea.

7.a Europako fiskal delegatuak eskatuta lekukoak eta perituak babesteko neurriak ezartzea.

9. artikulua. *Eskumen-arazoak.*

1. Europako Fiskaltzak eta Espainiako Fiskaltzak ezin badute adostu delitua den jokabidea erregelamenduaren zer artikuluren aplikazio-eremuan dagoen, 22. artikuluan 2. edo 3. apartatuarenean edo 25. artikuluan 2. edo 3. apartatuarenean, erabakia Estatuko Fiskaltza Nagusiaren titularrak hartuko du, Fiskaltzaren Estatutu Organikoan ezartzen denarekin bat etorritik.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den adostasunik eza Europako Fiskaltzaren eta gaia aztertzen ari den instrukzioko epaitegiaren artean gertatzen bada, eskumen-arazo modura izapidetuko da, eta ebazpena Auzitegi Gorenaren zigor-arloko salak emango du, Fiskaltzaren txostena aztertu ondoren.

3. Aurreko xedapenek ez dute ezertan eragozten Prozedura Kriminalaren Legeak ahozko epaiketaz xedatzen duena, ez eta erregelamenduaren 42.2.c) artikuluan beraren 22. eta 25. artikuluen interpretazioaz ezartzen dena ere.

10. artikulua. *Prebentzioko jarduketak.*

1. Delitu bat ikertzeko eskumena Europako fiskal delegatuei ematen zaienean, presaz jardun behar baldin bada, delitua gertatu den tokiko instrukzioko epaitegiek lehen eginbideak egin ditzakete, eta bidegabeko luzamenik gabe eman beharko diete eginbideen berri Europako fiskal delegatuei.

Lehen eginbideak egindakoan, horien berri emango diete Europako fiskal delegatuei, eta haien esku ipiniko dituzte delitua egiteko erabili diren tresnak eta eginbideen emaitzak, konbikzio-piezak eta atxikitako gauzak.

2. Larrialdietan, Polizia Judizialak ezinbestekoak diren neurriak hartuko ditu ikerketa eraginkorra izan dadin (behar denean, Europako fiskal delegatuaren zuzendaritzapean), eta ahalik azkarren (hogeita lau ordu igaro aurretik betiere) Europako fiskal delegatuari jakinaraziko dio zer neurri ezarri duen eta zergatik.

Prozesu-legediaren arabera beharrezkoa izanez gero, Europako fiskal delegatuak neurriak berretsiko ditu.

11. artikulua. *Ikerketa-prozedurako dokumentazioa.*

1. Ikerketa-prozedura zaintzea Europako Fiskaltzaren Bulegoari dagokio. Bulego horrek bermatuko du prozedura hura alderdien esku egotea, lege organiko honetan eta Europako Fiskaltzaren barne-funtzionamendurako arauetan ezartzen denarekin bat etorriz.

2. Berme-epaileari eman zaizkion egitekoak betetzeko behar den dokumentazioa kasuan kasuko Justizia Administrazioaren legelariaren ardurapean egongo da. Baldin eta, lege organiko honetan ezartzen denaren arabera, ikerketa-prozeduran berme-epaileak parte hartu behar badu, Justizia Administrazioaren legelariak eman beharko du Europako fiskal delegatuak edo alderdiek aurkeztutako eskaeraren berri, ebazpenerako behar den inguruabarrak azalduta.

3. Froga ziurtatzea dela eta, Justizia Administrazioaren legelariak emango du aurkezten diren eskaeren berri, eta ziurtatze-aktak protokoloan sartu, zaindu eta baimenduko ditu. Egindako guztia Europako fiskal delegatuari bidaliko dio, benetako kopia bat gordeko da agintaritza judizialarentzat, eta alderdiei lekukotza helaraziko zaie.

12. artikulua. *Dokumentuen kudeaketa.*

1. Ikerketa-prozeduran baliabide elektronikoz, informatikoz edo telematikoz egiten diren dokumentuak (zeinahi ere dela haien euskarria) eta baliabide horien bidez bildutako jatorrizko dokumentuen kopiak jatorrizko dokumentuak bezain baliodunak eta eragingarriak dira, baldin eta bermatzen bada egiazkoak direla, osorik daudela eta ongi kontserbatu direla eta lege organiko honek eta Europako Fiskaltzaren barne-arauek ezartzen dituzten bermeak eta betekizunak betetzen direla.

2. Ahal dela, prozeduraren kudeaketa errazten duten dokumentazioko teknikak eta metodoak eta baliabide elektronikoz, informatikoz eta telematikoz erabiliko dira.

13. artikulua. *Komunikazioen eta kontsulten araubide orokorra.*

1. Europako Fiskaltzaren eta Espainiako Fiskaltzaren arteko komunikazioak Estatuko Fiskaltza Nagusiaren bitartez bideratuko dira.

2. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren eskumena da *notitia criminis* deritzona helaraztea Europako fiskal delegatuei beren eskumeneko egitekoetan ari direla, erregelamenduaren 24. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aipatzen diren kasuetan.

3. Espainiako Fiskaltzak honako hauek egiteko eskumena dauka:

1.a Erregelamenduaren 24. artikulua 8. apartatuan aipatzen den informazioa jasotzea.

2.a Ebazpena ematea erregelamenduaren 25. artikulua 2 *in fine* eta 3. apartatuetan, 27. artikulua 4. apartatuan, 39. artikulua 3. apartatuan eta 40. artikulua 1. apartatuan arautzen diren kasuetan.

- 3.a Erregelamenduaren 25. artikulua 4. apartatuan aipatzen den baimena ematea.
- 4.a Eginbideak jasotzea erregelamenduaren 34. artikuluan arautzen diren transferentzia-kasuetan.

4. Artikulu honetan xedatzen dena gorabehera, indarrean da erregelamenduaren 24.1 artikuluan ezartzen den komunikazio-betebehar orokor hau: agintaritzea edo agente nazionalak, beren egitekoetan ari direla Europako fiskal delegatuen eskumeneko delitua izan daitekeen egitateren baten berri badute, jakinarazi egin behar dute.

II. TITULUA

Europako Fiskaltzaren eta Europako Fiskal Delegatuen Estatutua

14. artikulua. *Europako fiskala eta Europako fiskal delegatuak izendatzeko hautapena.*

1. Europako fiskala eta Europako fiskal delegatuak izateko hautagaiak erregelamenduz arautuko den hautaketa-batzorde batek izendatuko ditu. Hautaketa-prozesuaren oinarriak printzipio hauek izan behar dira: berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publikotasuna.

2. Erregelamenduak ezartzen duenarekin bat etorriz, hautagaiak Espainiako nazionalitatea eduki behar dute, karrera fiskaleko edo judizialeko kide aktiboak izan behar dute (eta erregelamendu-araudian ezartzen den antzintasuna eduki), eta ezin dira egon indarreko legedian ezartzen diren ezgaitasun-kasuetako ezeinetan. Gainera, independentziarekin jarduteko erabateko konpromisoa hartu behar dute, garapeneko erregelamendu-araudian ezartzen den bezala.

3. Hautaketa-prozesuan kontuan edukiko dira Europako Fiskaltzaren eskumeneko arloko ezagutza eta esperientzia praktikoa, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen ezagutza eta erregelamenduz edo hautaketa-prozesuaren deialdiaren oinarrietan ezartzen diren gainerako betekizun guztiak.

4. Hautaketa-prozesuan, enplegu publikoak eskuratzeko prozesuetan gizonari eta emakumei tratu bera emateko printzipioa aplikatu behar da, Konstituzioaren 14. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Egiako Berdintasuna Bermatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezartzen denarekin bat etorriz, eta kontuan eduki behar dira tratu-berdintasunaren printzipioa eta desgaitasuna duten pertsonak eta haien eskubideak ez diskriminatze printzipioa.

15. artikulua. *Europako fiskal delegatuen egoera administratiboa.*

1. Europako fiskal delegatuak zerbitzu berezietan egongo dira karguaz jabetzen direnetik kargua utzi arte. Beren egitekoetan ari direla, ez dira aterako Europako Fiskaltza Sortzeko Lankidetzaren Indartua ezartzen duen Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduak berriaz ematen dizkien eskumenetatik eta estatututik eta lege organiko honetatik.

2. Europako Fiskalen Elkargoak finkatzen duen ordainsaria jasoko dute Europako fiskal delegatuek. Hala ere, karrera fiskaleko edo judizialeko antzintasunari dagokion ordainsaria ere jaso dezakete, eta karrera horietako kideen Gizarte Segurantzaren erregimenean sar daitezke.

3. Eskubidea dute Europako fiskal delegatu izendatzean duten plaza edo hala diharduten artean lortzen dutena gordetzeko, eta egiten dituzten zerbitzuak kontuan hartuko zaizkie sustapenerako eta plazak hornitzeko orduan, beren karreraren, Europako fiskal delegatu izendatzean duten plazan edo hala diharduten artean lortzen duten plazan egin balituzte bezala.

16. artikulua. *Europako Fiskaltzaren Bulegoa eta Europako fiskal delegatuei laguntzeko baliabideak.*

1. Europako fiskal delegatuek eksklusibotasunarekin eta lansai osoan jardungo dute Europako Fiskaltzaren egitekoetan. Haien egoitza Madrilen egongo da.

2. Bulego bat sortuko da Europako fiskal delegatuen egitekoak betetzeko. Bulego horri atxikiko zaizkion Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia-erkidegoetako eta Justizia Administrazioako funtzionarioen kopurua lanpostuen zerrendan ezarriko da. Lanpostu horietan aritzen direnak zerbitzu berezietan egongo dira beren kidegoetan.

3. Europako fiskal delegatuek Polizia Judizialaren eta ikerketak ongi egiteko behar diren profesional eta aditu guztien laguntza jasoko dute.

III. TITULUA

Europako Fiskaltzaren ikerketa-prozedura

I. KAPITULUA

Ikerketa-prozedura hastea

17. artikulua. *Europako Fiskaltzaren ikerketa-prozeduraren zuzendaritza eta trebakuntza.*

Europako Fiskaltzaren ikerketa-prozeduraren zuzendaritza eta trebakuntza Europako fiskal delegatuen ardurak izango dira.

Prozedura horren inguruko jarduketa guztiak Europako Fiskaltzaren ikerketa-prozedura gisa erregistratuko dira, eta Europako Fiskaltzaren kasuak kudeatzeko sisteman jasoko.

18. artikulua. *Europako fiskal delegatuen ikerketa-prozeduraren hasiera.*

1. Europako fiskal delegatuek ikerketa bat hasiko dute, salaketa baten, kereila baten edo legedian ezarritako beste bitarteko baten bidez, beren eskumenekoak izan daitezkeen eta itxuraz delitua diren egitateen berri jakinez gero. Hala gertatzen denean, dekretu baten bidez erabakiko dute Europako Fiskaltzaren ikerketa-prozedura hastea, eta beren eskumenekoa ote den egiaztatuko dute.

2. Beraz, lege organiko honen 13. artikulua 4. apartatuarekin bat etorritik, agintaritzak bidegabeko luzamenik gabe jarriko ditu jakinaren gainean Europako fiskal delegatuak, haien eskumeneko delitua izan daitekeen egitate baten berri jakinez gero bere egitekoetan ari dela, erregelamenduaren 24. artikuluan moduz eta edukiaz ezartzen diren baldintzak beteta.

3. Polizia Judizialak, Europako fiskal delegatuen eskumeneko egitateak ikertzen hasten bada, horren berri eman beharko die haiei, aurreko apartatuan ezartzen den bezala, eta Estatuko Fiskaltza Nagusiari ere jakinarazi beharko dio.

Fiskaltzak edo organo judizialen batek ere, Europako fiskal delegatuen eskumeneko egitateen berri jakinez gero, horren berri eman beharko du, bidegabeko luzamenik gabe, erregelamenduaren 24. artikuluan ezartzen diren ondorioetarako.

19. artikulua. *Prozedura eskumena bereganatzeko eskubidearen bidez hastea.*

1. Fiskaltza edo organo judizial bat Europako fiskal delegatuen eskumenekoa izan daitekeen egitate bat ikertzen hasten bada, hark horren berri emango die horiei, eskumena bereganatzeko eskubidea erabili ahal izateko erregelamenduaren 27. artikuluan ezartzen den bezala, eta ezin izango dute hartu hori eragozteko erabakirik (aitzitik, presako neurriak ezar ditzakete ikerketa eta akzio penala ziurtatzeko).

2. Europako Fiskaltzak eskumena bereganatzeko eskubidea erabiltzen badu, egindako jarduketak bidali beharko dizkiote egitatea ikertzen ari diren agintaritzak nazionalak, eta ikerketa bertan behera utzi beharko dute. Nolanahi ere, ikerketa ziurtatzeko

behar diren presako neurriak ezar ditzakete. Jarduketetan ez da atzera egingo, ikerketan aurrera egiteko ezinbestekoa den horretan izan ezean.

3. Herri-akusazio modura pertsonatzen direnek alderdia izateari utziko diote berez.

Hala ere, herri-akusazio modura pertsonatzen direnek aukera badute akusazio partikularra egiteko lege organiko honen 36. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz, hala pertsonatu direla pentsatuko da.

20. artikulua. *Europako fiskal delegatuek eskumena erabiltzea.*

Aurreko artikuluetan ezartzen diren kasu guztietan, Europako fiskal delegatuek, beren eskumena erabiltzea erabakitzen badute erregelamenduan ezarritako izapideak egin ondoren, horren berri emango diote informazioa eman duen agintaritzari, eta Estatuko Fiskaltza Nagusiari ere bai.

21. artikulua. *Eskumena agintaritza nazionalari itzultzea.*

Europako fiskal delegatuak, edozein dela ere haren jarduna hasteko modua, agintaritza nazionalari itzuliko dizkie jarduketak, baldin eta gertatutakoa egiaztatu ondoren eta erregelamenduari bat etorriz erabakitzen badu ikertutako egitateak ez direla beraren eskumenen esparruko delitua edo, beraren eskumenekoa izan arren, ez dagoela arrazoirik jarduteko. Arau hauen arabera itzuliko dizkie:

1.a Hasierako informazioa judiziala ez den Espainiako agintaritza batek edo Fiskaltzak eman badu, jarduketak Estatuko Fiskaltza Nagusiari itzuliko zaizkio.

2.a Hasierako informazioa organo judizial batek eman badu, jarduketak hura jaso duen organoari itzuliko zaizkio, eta ikerketa-prozedurak aurrera egingo du ohiko izapideetatik.

22. artikulua. *Agintaritzen arteko komunikazioa.*

Europako fiskal delegatuak, hasierako egiaztapenaren ondoren bere eskumena erabiltzen ez badu edo jakinarazi zaizkion egitateak ez badira beraren eskumenekoa, horren berri emango die aurreko artikuluetako agintaritza nazionalari, delituaren biktimei eta, betiere, Fiskaltzari, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren bidez.

23. artikulua. *Prozedura hasteko dekretua.*

1. Europako Fiskaltzaren ikerketa-prozedura hasteko dekretuan zehatz-mehatz azaldu behar da zein den egitate zigorgarria, nolakoa den beraren behin-behineko kalifikazio juridikoa, nor den ikertutako pertsona (jakinez gero), eta nortzuk diren delituaren biktimak. Ebazpen berdina emango da Europako fiskal delegatuak eskumena bereganatzeko eskubidea erabiltzen badu erregelamenduaren 27. artikuluekin bat etorriz.

2. Prozedura sekretupean edukitzea erabaki ezean, hura hasteko dekretua ikertutako pertsonari jakinaraziko zaio, eta zer eskubide dauzkan azalduko zaio, argi eta ulertzeko moduan.

Dekretua delituaren biktimei ere jakinaraziko zaie, eta zer eskubide dauzkaten azalduko zaie (alderdi modura parte hartzeko eskubidea batez ere). Europako fiskal delegatuek legedian biktimei onartzen zaizkien eskubideak zainduko dituzte.

3. Prozedura hasteko dekretua ikertutako pertsonak eta delituaren biktimek aurkaratu ahal izango dute lege organiko honen 91. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.

Berme-epaileak dekretuaren aurkaratzeaz ematen duen ebazpenaren aurka apelazio-errekurtsoa aurkez daiteke.

24. artikulua. *Ikerketaren ardura daukan Europako fiskal delegatua.*

Prozedura hasteko dekretua beraren ardura daukan Europako fiskal delegatuak sinatuko du (erregelamenduaren 2. artikulua 5. apartatua aipatzen denak). Hura joko da ikerketaren ardura daukan fiskaltzat lege organiko honen ondorioetarako. Fiskal arduradun bat baino gehiago izenda daiteke.

25. artikulua. *Berme-epailea ezartzea eta prozedura beste estatu batetik berresleitzea, pilotzea eta zatitzea.*

1. Ikerketaren ardura daukan Europako fiskal delegatuak prozedura hasteko dekretuaren berri emango dio Justizia Administrazioaren legelariari, banaketa-arauak aplikatuz erabaki dezan zer epailek daukan eskumena lege organiko honek berriaz berme-epailearen esku uzten dituen egintzetan esku hartzeko.

Justizia Administrazioaren legelariak prozedura esleitu zaiola jakinaraziko dio epaile eskudunari.

Erregistro-zenbakia eta berme-epaileari buruzko erabakia ikerketaren ardura daukan Europako fiskal delegatuari eta Estatuko Fiskaltza Nagusiari jakinaraziko zaizkie.

2. Gauza bera egingo da kasu honetan: erregelamenduaren 26. artikuluan xedatzen denaren arabera Europako fiskal delegatu bati beste estatu bateko ikerketa bat esleitzen zaionean edo ikerketa bat Fiskaltzaren eskumeneko kasuak pilotzeko edo zatitzeko erabaki baten ondorioz esleitzen zaionean.

Halako kasuetan, ordura arte egindako jarduketak guztiz baliodunak dira, jarduketek ez dute atzera-eraginik eta berme-epaileak ordutik aurrera lege organiko honek ematen dizkion eskumenak edukiko ditu.

II. KAPITULUA

Ikertutako pertsonak esku hartzea

26. artikulua. *Ikertutako pertsonaren eskubideak.*

1. Europako fiskal delegatuak bere gain hartzen dituen ikerketetan, ikertutako pertsonak Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunean, Konstituzioan eta Prozedura Kriminalaren Legean onartzen zaizkien eskubideak dituzte.

2. Ikertuak, betiere, eskubide hauek ditu:

a) Lehen agerraldian ikerketa, ikertzen diren egitateak eta haien behin-behineko kalifikazio juridikoa berari jakinarazteko eskubidea.

b) Egindako ikerketa-eginbideen berri jakiteko eskubidea, eta lehen agerraldiaz gero egiten direnen berri jakiteko ere bai, ikerketa sekretupean jartzen ez bada.

c) Izendatzen duen abokatuak edo, izendatzen ez badu, ofizioz esleitzen zaionak laguntzeko eta defendatzeko eskubidea.

d) Europako fiskal delegatuaren aurrean zein egoitza polizialean ezer deklaratu aurretik eta ondoren abokatuarekin bakarka hitz egiteko eskubidea.

e) Abokatu baten laguntzarekin eta eskatzen duen guztietan Europako fiskal delegatuaren aurrean deklaratzeko eskubidea, eginbideak direla-eta edo zerbait zehaztu, gehitu edo zuzendu behar izanez gero.

f) Ez deklaratzeko eskubidea, hau da, ikertutako egitateez edo bere kalterako izan daitezkeela uste duen beste egitate batzuek ezer ez esateko edo zerbait isilean uzteko eskubidea.

g) Bere buruaren aurka ez deklaratzeko eta egitateetan parte hartu duela ez konfesatzeko eskubidea.

h) Prozesuan erabiltzen den hizkuntza ofiziala ulertzen edo hitz egiten ez badu, doako interpretea edukitzeko eskubidea, eta defentsarako eskubidea erabiltzeko funtsezkoak diren dokumentuen itzulpen idatzia jasotzeko eskubidea.

Eskubide horri ezin zaio uko egin, eta entzuteko edo mintzatzeko mugak dituzten pertsoneri ere aplikatuko zaie.

- i) Baliatu nahi dituen zuri-bide-elementuak aurkezteko eskubidea.
- j) Bere defentsarako bidezkoak eta onuragarriak diren ikerketa-egintzak proposatzeko eskubidea.
- k) Prozedura Kriminalaren Legearen arabera esku har dezakeen ikerketa-egintzetan parte hartzeko eskubidea eta, kasu guztietan, lege organiko honen IV. tituluaren VI. kapituluaren arabera froga-iturri bat ziurtatzeko egiten diren egintzetan parte hartzeko eskubidea.
- l) Berme-epaileari froga-iturri bat ziurtatzeko edo lege organiko honetan arautzen diren kasuetan froga aurreratua egiteko eskatzeko eskubidea.

3. Jarduketak aztertzekeo eskubideak indarreko Prozedura Kriminalaren Legean ezartzen den irismena dauka. Eskubide horren arabera, Europako Fiskaltzaren Bulegoak zaintzapean daukan ikerketa-espedientea azter daiteke.

27. artikulua. *Karguen berri emateko lehen agerraldia.*

1. Jarduketek agerian jartzen dituzten zantzuei esker egitate zigorgarria pertsona jakin bati egotzi ahal bazaio, Europako fiskal delegatuak lehen agerraldirako zitazioa bidaliko dio beraren kontrako ikerketa egiten ari dela jakinarazteko.

Zitazioan azalduko zaio defendatzailearekin agertu behar dela, eta ohartaraziko zaio ezen, defendatzailearik ez badauka, bat izendatuko dela ofizioz.

Ikerketa sekretupean egiteko baimena eman bada, beste era batera jokatu da: lehen agerraldia sekretua kendu eta berehala egingo da.

2. Agerraldiaren hasieran Europako fiskal delegatuak datu pertsonalak eskatuko dizkio ikertutako pertsonari, daukan eskubideen berri emango dio, eta eskatuko dio Espainiako egoitza bat esan dezala jakinarazpenak bidaltzeko edo pertsona bat izenda dezala jakinarazpenok beraren ordeztasun jasoetako, eta ohartaraziko dio izendatutako pertsonaren bidez edo esandako egoitzara bidalita egiten den zitazioak aukera emango duela ahozko epaiketa bera gabe egiteko Prozedura Kriminalaren Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan ezartzen diren baldintzak betez gero.

Jarraian argi eta zehatz azalduko dio zer egozten zaion eta zein den egitate horren behin-behineko kalifikazio juridikoa, eta hori guztia aktan adieraziko da.

Azkenik, Europako fiskal delegatuak ikertutako pertsonari galdetuko dio ea nahi duen deklaratu agerraldian bertan; baietz erantzunez gero, eginbide hori egingo da.

3. Ikerketaren konplexutasun handia dela-eta hitzezko informazioa ez bada nahikoa ikertzen ari diren egitateak eta horien behin-behineko kalifikazio juridikoa ongi ulertzeko, idatziz emango zaio horien berri ikertutako pertsonari, eta hori agerraldiaren aktan adieraziko da.

4. Ikerketan pertsona berari dagozkion egitate berriak agertzen direnean edo egitate zigorgarria beste pertsona bati edo batzuei egoteko baliatzen daitezkeen elementuak gertatzen direnean, beste agerraldi baterako deia egingo zaie.

5. Ikerketa-prozedura erregelamenduaren 29. artikuluan ezartzen denaren arabera immunitatea daukan pertsona baten kontrakoa bada, lehen agerraldiaren aurretik Europako fiskal nagusiak pertsona foruduna epaitzeko eskumena daukan organoaren aurrean eraturako berme-epailearengana joko du, eta esango dio aurrera egiteko baimena eska dezala.

Gauza bera egingo da lehen agerraldia egin gabe Europako fiskal delegatuak kautelazko neurriren bat hartzeko edo pertsona foruduna atxilotzeko eskatzen duenean.

6. Lehen agerraldiaren aktaren kopia bidaliko zaio berme-epaileari, eta horren ondoren egiten diren guztienak ere bai.

28. artikulua. *Lehen agerraldia atxilotetetan.*

1. Aurreko artikuluan xedatzen dena gorabehera, norbait atxilotzen denean edo atxilotzeko erabakia hartzen denean, prozedura beraren kontrakoa dela pentsatuko da beti.
2. Europako fiskal delegatuak pertsona ikertua atxilotzeko agintzen badu, lehen agerraldia atxilotua epailearen esku jartzen denean egingo da. Horretarako epealdia 78.1 artikuluan ezartzen da.

29. artikulua. *Lehen agerraldia atzeratzea.*

- Europako fiskal delegatuak inolaz ere ezin izango du atzeratu lehen agerraldia.
- Europako fiskal delegatuak lehen agerraldia atzeratzen badu bidezko arrazoirik gabe, berme-epaileak deklaratu du, defendatzaileak eskatu ondoren, karguen berri eman gabe egindako ikerketa-egintzak deusezak direla, baldin eta horren ondorioz babesgabetasuna gertatu bada.
- Berme-epaileak intzidentea ebazteko ematen duen ebazpenaren aurka apelazio-errekurtsua aurkez daiteke.

30. artikulua. *Ikertutako pertsonaren deklarazioa.*

1. Ikertutako pertsonak egitatei buruzko deklarazioa egin dezake lehen agerraldian.
2. Ondoren, Europako fiskal delegatuak dei diezaioke ikertutako pertsonari egitatez galdetzeko, ikerketaren helburuetarako beharrezkoa dela uste badu.
Halakoetan, berrogeita zortzi ordu lehenago gutxienez jakinaraziko die pertsona interesdunari eta beraren defendatzaileari. Epealdi hori ez da aplikatuko norbait atxilotzen denean, ez presa dagoenean, ez froga-iturriren bat desagertzeko arriskua dagoenean; kasu horietan, prozeduran adieraziko da zergatik ezin izan den aplikatu epealdia.
Eginbide hau egiteko, pertsonatutako alderdi guztiei deituko zaie. Alderdiren bat ez bada agertzen eginbidera eta ez badu ematen bidezko arrazoirik horretarako, hala ere, eginbideak aurrera egingo du.
3. Eginbide honetarako zitazioan argi eta erraz ulertzeko moduan jakinaraziko zaio ikertutako pertsonari zer eskubide dauzkan Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren, Konstituzioaren eta prozedura Kriminalaren Legearen arabera, eta ohartaraziko zaio bidezko arrazoirik gabe agertu ezean atxilotzeko agindu ahal izango dela.
4. Ikertutako pertsonak nahi duen guztietan eska dezake deklarazioa hartzeko, horretarako arrazoa azalduta. Europako fiskal delegatuak ahalik azkarrena jasoko du deklarazioa, kausarekin lotuta egonez gero.
Eginbidea ukatzen duen dekretua aurkaratu dezake ikertutako pertsonak, lege organiko honen 91. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.
5. Ikertutako pertsonak, deklaratu behar duen guztietan, berak izendatutako edo, bestela, ofizioz emandako abokatuaren laguntza edukiko du.

31. artikulua. *Ikertutako pertsonak deklaratzeko eta gertatutakoa aitortzea.*

1. Deklaratzen ari dela ikertutako pertsonak esaten badu onartu nahi duela egitate zigorgarrietan parte hartu duela, deklarazioa hartu ondoren Europako fiskal delegatuak zitazioa egingo dio bere defendatzailearekin batera berme-epailearen aurrera agertu dadin, deklarazioa berriz egiteko, froga-iturriak ziurtatzeko ezartzen den bezala.
Eginbide hori egiteko, pertsonatutako alderdi guztiei deituko zaie. Alderdiren bat ez bada agertzen eginbidera eta ez badu bidezko arrazoirik ematen horretarako, hala ere, eginbideak aurrera egingo du.
2. Deklarazioaren hasieran, ikertutako pertsonak egitateak azalduko ditu, bere erara; ondoren, Europako fiskal delegatuak eta alderdiek galderak egin ditzakete edo argibideak eskatu, berme-epailearen aburuz harira datozenak bakarrik.
3. Ikertutako pertsonak aitortza egin arren, delitua gertatu den eta hark bertan parte hartu duen egiaztatze behar diren eginbide guztiak egingo dira, non eta ez den eskatzen adostasun-epaia eman dadila lege organiko honetan ezartzen denaren arabera.

32. artikulua. *Prozedura eskuratzea.*

Lehen agerralditik, prozedura sekretupean jartzen denean izan ezean, ikertutako pertsonaren defendatzaileak ikerketa-espeditentea azter dezake, Prozedura Kriminalaren Legeak xedatzen duen bezala.

Ikerketa-prozedura aztertu ahal izateko, ikertutako pertsonaren defendatzaileak egin diren jarduketak guztiak ikusi ahal izango ditu. Espeditentea aztertzea ukatuz gero, berme-epaileari eskatu ahal izango zaio, eta hark agindu egingo du espeditentea aztertzen uzteko, prozedura sekretupean jarri ez bada.

33. artikulua. *Eginbideak proposatzea.*

1. Ikertutako pertsonaren defentsak ikerketarako bidezkotzat eta onuragarritzat jotzen dituen eginbideak egiteko eska dezake.

2. Europako fiskal delegatuak agindua emango du defentsak proposatutako eginbideak egiteko, egitatea delitua den eta erantzukizun kriminala dagoen erabakitze garrantzitsuak izanez gero. Garrantzitsuak ez badira, dekretu baten bidez ukatuko ditu.

Eginbideak ukatzeko dekretua aurkaratu dezake eskatzaileak, berme-epailearen aurrean. Dekretua 91. artikuluan zehaztuta dagoen prozeduraren bidez aurkaratu behar da.

3. Berme-epaileak eginbide horiek egiteko aginduko du haien emaitza nahitaezkoa bada egitatea delitua den erabakitze edo ikertutako pertsonak hartan parte hartu duen erabakitze, eta eginbideak ezin badira utzi tarteko faserako edo ahozko epaiketarako.

34. artikulua. *Zuribide-elementuak aurkeztea.*

1. Ikertutako pertsonak bere defentsarako garrantzitsutzat jotzen dituen dokumentu guztiak aurkez ditzake prozeduran.

Gainera, berak hautatutako perituak beraren kontura eta berak eskatuta egindako peitu-txostenak aurkez ditzake.

2. Europako fiskal delegatuak kasu batean bakarrik uka dezake dokumentu eta txosten horiek prozeduran sartzea, ikerketaren xedearekin zerikusirik batere eduki ez eta inolako garrantzirik ez dutenean.

Hori ukatzeko ematen den dekretua berme-epailearen aurrean aurkaratu daiteke. Dekretua 91. artikuluan zehaztuta dagoen prozeduraren bidez aurkaratu behar da.

35. artikulua. *Ikerketa-egintzetan parte hartzea.*

Ikerketa sekretua dela adierazi ezean, ikertutako pertsonak, bere kabuz edo bere defentsaren bidez, parte har dezake ikerketa-egintzetan; batez ere, lege organiko honen IV. tituluaren VI. kapituluan ezartzen denarekin bat etorritz frogaiturriak ziurtatzeko egiten direnetan.

III. KAPITULUA

Akusazio partikularrak esku hartzea36. artikulua. *Akusazio partikularra pertsonatzea.*

1. Delituaren biktimak akusazio partikular modura pertsonatu daitezke Europako Fiskaltzaren ikerketa-prozeduran noiznahi akusazio-idazkiaren izapidearen preklusioaren aurretik. Nolanahi ere, horrek ez die atzera eragingo jarduketei.

Lege organiko honen ondorioetarako, biktima dira arau-hausteak minutako edo delituak kalte egindako pertsonak edo entitateak.

2. Pertsonatzeko eskatzeko idatzia Europako fiskal delegatuari bidali behar zaio, eta ordezkariak eta defentsak sinatu behar dute.

3. Europako fiskal delegatuak alderditzat joko ditu, lege organiko honek onartzen dizkien eskubideekin, biktimak direla egiaztatu ondoren.

4. Pertsonatzea ukatzen duen dekretua bost eguneko epealdian aurkaratu dezake eskatzaileak, berme-epailearen aurrean. Dekretua 91. artikuluan zehaztuta dagoen prozeduraren bidez aurkaratu behar da.

Berme-epailearen ebazpenaren aurka ezin da jarri errekurtsorik.

5. Lege organiko honetan arautzen den prozeduran ezin da pertsonatu herri-akusazio modura.

Ikertzen den delituak kalte egindako interesak babesteko legitimotasuna legez onartuta daukaten elkarteek eta entitateek ere erabil dezakete akzio penala.

37. artikulua. *Akzio zibila erabiltzea.*

1. Akzio zibila akzio penalarekin batera erabil dezake akusazio partikularrak.

Hala ere, biktimek akzio zibila baino ezin dute erabili auzi-jartzaile zibil modura.

Akzio zibila soilik erabiltzen duenak hartarako borondatea bakarrik adierazi behar du Europako fiskal delegatuari bidali beharreko pertsonatze-idazkian.

2. Pertsonatzea ukatzen duen dekretua bost eguneko epealdian aurkaratu dezake eskatzaileak, berme-epailearen aurrean. Dekretua 91. artikuluan zehaztuta dagoen prozeduraren bidez aurkaratu behar da.

Berme-epailearen ebazpenaren aurka ezin da jarri errekurtsorik.

3. Alderditzat onartu ondoren, auzi-jartzaile zibilak eska dezake benetako kautelazko neurriak ezartzeko, 56. artikuluan arautzen denarekin bat etorritik.

38. artikulua. *Prozedura eskuratzea.*

Pertsonatzea onartzen denetik, prozedura sekretupean egon ezean, akusazio partikularrak ikerketa-espeditatea azter dezake, Prozedura Kriminalaren Legeak xedatzen duenarekin bat etorritik. Ukatuz gero, berme-epaileari eskatu ahal izango zaio, eta hark agindua emango du espeditatea aztertzen uzteko, prozedura sekretupean jarri ez bada.

Ukatzeko ematen den dekretua berme-epailearen aurrean aurkaratu daiteke. Dekretua lege organiko honen 91. artikuluan zehaztuta dagoen prozeduraren bidez aurkaratu behar da.

39. artikulua. *Eginbideak proposatzea.*

1. Akusazio partikularrek Europako fiskal delegatuaren esku utz dezakete egitateak egiaztatzeko baliagarritzat jotzen dituzten eginbideak egiteko aukera.

2. Europako fiskal delegatuak erabakia hartuko du defentsak proposatutako eginbideak egiteko, egitatea delitua den eta erantzukizun kriminala dagoen erabakitze garrantzitsuak izanez gero. Garrantzitsuak ez badira, dekretu baten bidez ukatuko ditu.

Eskatzaileak aurkaratu dezake eginbideak ukatzeko dekretua, berme-epailearen aurrean. Dekretua 91. artikuluan zehaztuta dagoen prozeduraren bidez aurkaratu behar da.

3. Europako fiskal delegatuak ikerketa-prozeduran ukatzen dituen eginbideak berme-epaileari eskatu ahal izango zaizkio. Hark kasu honetan soilik agindu dezake eginbide horiek egiteko: haien emaitza nahitaezkoa denean egitatea delitua den erabakitze edo ikertutako pertsonak hartan parte hartu duen erabakitze, eta eginbide horiek tarteko faserako edo ahozko epaiketarako utzi ezin direnean.

40. artikulua. *Informazioa ematea.*

Akusazio partikularrek ikerketarako garrantzitsutzat jotzen dituzten informazioak jakinaraz diezazkiokete Europako fiskal delegatuari.

41. artikulua. *Ikerketa-egintzetan parte hartzea.*

Akusazio partikularrek ikerketa-egintzetan parte har dezakete; batez ere, lege organiko honen IV. tituluaren VI. kapituluaren ezartzen denarekin bat etorritik frogaitzeko egiten direnetan.

IV. KAPITULUA

Europako fiskal delegatuaren ikerketa-eginbideak42. artikulua. *Europako fiskal delegatuaren ikertzeko ahalmena.*

1. Lege organiko honetan, erregelamenduan eta barne-araudian xedatzen denarekin bat etorritz, Europako fiskal delegatuek ikerketa zuzenduko dute, eta, horretarako, Prozedura Kriminalaren Legean ezartzen diren ikerketa-egintza eta ziurtatze-egintza guztiak egiteko aginduko dute, Konstituzioak eta gainerako ordenamendu juridikoak agintaritzat judizialarentzat gordetakoak izan ezik, horiek egiteko baimena berme-epaileak eman behar du eta.

2. Beren ahalmenak erabiltzen ari direla, Europako fiskal delegatuak ikerketa arretaz egin dadin arduratuko dira. Horretarako, prozedura bultzatuko dute, neurriak hartuko dituzte haren izapideak ez gelditzeko eta modua egingo dute beraren helburuak lortzeko ezinbestekoa den denboran betetzeko prozedura.

Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikuluan biltzen dena ez da aplikatuko Europako Fiskaltzaren aurrean egiten diren prozeduretan.

3. Ikerketa-eginbideak Prozedura Kriminalaren Legeak ezartzen duenarekin bat etorritz egingo dira, lege organiko honetan berariaz arautzen diren espezialitateak aplikatu behar direnean izan ezik.

43. artikulua. *Lekukoaren deklarazioa.*

1. Europako fiskal delegatuak lekuko gisa bertaratzeko eta deklaratzeko agindu diezaieke delitua ikertzeko eta delitugilea nor den zehazteko garrantzitsuak diren gertaeren edo inguruabarren berri dakiten pertsona guztiei eta horretarako erabil daitezkeen datuak eman ditzaketenei.

Ahozko epaiketara agertu beharretik eta bertan deklaratu beharretik salbuetsita daudenek ez beste pertsona guztiek jaramon egin behar diote Europako fiskal delegatuak lekuko gisa deklaratzera egiten duen deiari, eta dakiten guztia kontatu behar dute.

2. Lekukoak Prozedura Kriminalaren Legean ezartzen den bezala deklaratu du.

Pertsonatutako alderdiak lekukoaren deklarazioan egon daitezke, beren abokatuen bidez. Halakoetan, deklarazioa amaitu ondoren galderak egin diezazkiokete lekukoari, beharrezkotzat jotzen dituzten argibideak emateko.

44. artikulua. *Perituaren irizpena.*

1. Europako fiskal delegatuak kontuan edukiko ditu irizpena eman beharreko gaiaren berezitasuna eta horren gaineko eskumena, eta, horien arabera, nahi dituen perituak izenda ditzake berak ebatzi behar dituen alderdiei buruzko irizpena eman dezaten.

Irizpenaren konplexutasuna dela-eta beharrezkoa izanez gero, bi peritu edo gehiago izenda ditzake. Ahal dela, Europako Fiskaltzari atxikitako langile teknikariak izendatuko dira.

2. Izendapena alderdi interesdunei jakinaraziko zaie. Horiek hiru eguneko epealdia edukiko dute irizpenean kontuan hartu beharreko beste gai batzuk proposatzeko.

Irizpenaren izaerak eta xedeak aukera emanez gero, pertsonatutako alderdiek ere peritu bat izenda dezakete, beren kargura azterketan parte hartzeko.

Europako fiskal delegatuak peritua onartuko du, irizpenerako onuragarria eta egokia izanez gero.

Ukatuz gero, eskatzaileak aurkaratu dezake ukatzen duen dekretua, berme-epailearen aurrean. Dekretua 91. artikuluan zehaztuta dagoen prozeduraren bidez aurkaratu behar da.

3. Alderdiren batek, peritu bat abstenitzeko arrazoiren bat dagoela badaki eta hura abstenitzen ez bada, horren berri emango dio Europako fiskal delegatuari, eta peritu hura errekusatzea proposatuko dio, idatziz. Idatzia errekusatutako perituari helaraziko zaio, alegatzen den abstentzio-arrazoia badagoela aitortzen duen adieraz dezan.

Perituak errekusatzeko arrazoia ukatzen badu, behar diren eginbideak egingo dira, eta, ondoren, Europako fiskal delegatuak dagokiona ebatziko du alegatutako errekusazio-

arrazoiari buruz dekretu baten bidez. Ebazpen hori berme-epailearen aurrean aurkaratu daiteke, 91. artikuluan ezartzen den prozeduraren bidez.

45. artikulua. *Lekukoak eta perituak babestea.*

1. Europako fiskal delegatuak berme-epaileari eska diezaioke Auzi Kriminaletan Lekukoak eta Perituak Babesteko abenduaren 23ko 19/1994 Lege Organikoak xedatzen duenarekin bat etorritz ezar daitezkeen neurrietako bat har dezala.

2. Europako fiskal delegatuak legedian auzi kriminaletako lekukoaren eta perituen babesaren inguruan Fiskaltzari ematen zaizkion eskumenak edukiko ditu.

46. artikulua. *Toki itxian sartzeta eta miatzea.*

Adostasunik egon ezean edo ageri-ageriko delitua gertatu ezean, berme-epailearen baimena beharko da norbaiten etxean sartzeko.

Etxea ez den toki itxi batean sartzeta Europako fiskal delegatuaren ardura izango da, edo Polizia Judizialarena, baina Europako fiskal delegatuak baimena eman behar dio hari aurrez, dekretu baten bidez.

47. artikulua. *Pertsona juridikoaren etxean sartzeta eta miatzea.*

1. Prozedura Kriminalaren Legean toki itxietan sartzeko eta tokiok arakatzeko ezartzen diren arauak pertsona juridikoen egoitzetan sartzeko eta egoitza horiek arakatzeko aplikatu daitezke.

Horren harira, pertsona juridikoaren egoitza hark zuzendaritza-jarduerak egiten dituen toki itxia da, edo hark jarduerari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko datuak, hirugarrenek eduki ezin dituztenak, zeinahi euskarritan zaintzen dituen toki itxia.

2. Pertsona juridiko baten egoitzan sartzeko eta hura arakatzeko adostasuna haren legezko ordezkariak, ahalordedunak edo egitatezko zein zuzenbideko administratzaileak eman dezakete.

Hala ere, delitua ageri-agerikoa denean izan ezik, baimen judiziala beharko da beti toki eta espazio hauetan sartzeko eta arakatzeko:

- a) Pertsona eta erakunde juridiko-publikoen bulegoak.
- b) Alderdi politikoen, sindikatuen eta hedabideen egoitzak, eta horiek beren jardunerako erabiltzen dituzten bulegoak, lanbideko sekretua aitortuta daukatena.

Abokatu, prokuradore edo notario baten bulego profesionala arakatu behar izanez gero, tartean den elkargoko dekanuari jakinarazi behar zaio ebazpena (edo estatutuen arabera hura ordezkatzeko duenari), arakatzeko-eginbidean egon dadin.

- c) Banku-entitateetako edo berariazko zaintza-instalazioetako segurtasun-kutxak irekitzea eta arakatzeta.

48. artikulua. *Komunikazioak bidean atzematea eta ikerketa teknologikorako neurriak.*

Europako fiskal delegatuak fiskal nazionalen ahalmenak ditu honako hauei buruzko neurrien gainean: korrespondentzia atxiki eta irekitzea; telefono bidezko komunikazioak eta komunikazio telematikoak bidean atzematea; ahozko komunikazioak gailu elektronikoen bitartez atzematea eta grabatzea; jarraitzeko, kokalekua zehazteko eta irudiak grabatzeko gailu teknikoak erabiltzea; informazioaren biltegiratze masiboko gailuak arakatzeta; ekipu informatikoak urrunetik arakatzeta. Nolanahi ere, arau hauek aplikatu behar dira:

1.a Europako fiskal delegatuak Espainiako legediarekin bat etorritz eskatu behar du neurria; hala ere, kontuan eduki behar dira 51. artikuluan mugaz haraindiko frogei buruz ezartzen diren arau bereziak.

2.a Berme-epaileari eskaera egitean, Europako fiskal delegatuak baimena eska dezake neurriaren aplikazioa berak zuzenean zuzentzeko jarraibideak emanez hura betearazteko ardura daukatenei.

Baimena ematen bada komunikazio-prozesu bateko trafiko-datuak edo horrekin lotutako datuak eskuratzeko, kontrolatutako komunikazioen zerrenda jakinaraziko zaio Europako fiskal delegatuari (berak esango du zenbatean behin), horietako bakoitzaren datuak xehatuta.

Komunikazioen edukia arakatzeko agintzen bada, komunikazio guztien grabazio osoa ipiniko da Europako fiskal delegatuaren esku, eta grabazioa egiazkoa eta osoa delako ziurtagiri frogagarria aurkeztuko da, bai eta ikerketarako interesgarriztat jotzen diren pasarteen transkripzioa ere.

3.a Europako fiskal delegatuak neurrien indarraldia luzatzeko eska dezake legediaren arabera luza daitekeen kasuetan. Eskaeran, luzapena zergatik behar den azaldu behar du. Luzapen-eskaeraren oinarritzat eginbideetan eskuratzeko den informazioa erabil daiteke; neurriei eutsi edo ez erabakitzeko kontuan hartu beharrekoa, hain zuzen ere.

4.a Esku-hartzea amaitu eta sekretua kendu ondoren, Europako fiskal delegatuak 28. artikuluan arautzen den agerraldira deituko dio ikertutako pertsonari. Kasu honetan, agerraldi horrek beste xede bat ere badauka: grabazioak aztertzea, garrantzitsua zer den erabakitzeko eta ikerketarako edo defentsa-eskubidea modu eraginkorrean erabiltzeko interesgarria ez dena baztertzeko. Pertsonatutako alderdi guztiei deituko zaie agerraldira, eta, han, nahi dituzten ohar guztiak egin ahal izango dituzte. Alderdiren bat bidezko arrazoirik eman gabe bertaraten ez bada zitazioa ongi helarazi zaion arren, entzunaldi hori ez da bertan behera geldituko. Hala ere, grabazioak aztertzeko agerraldia egin beharrenean, alderdiei aukera eman ahal zaie oharrak idatziz aurkezteko.

Ez bada adosten zer informazio utzi behar den prozeduratik kanpo, berme-epaileak dagokiona ebartziko du, alderdien oharrak kontuan hartuz, Europako fiskal delegatuari entzun ondoren.

Berme-epailearen ebazpenaren aurka ezin da jarri errekurtsorik.

49. artikulua. *Datuen kontserbazioa.*

Europako fiskal delegatuak Prozedura Kriminalaren Legean arautzen diren ziurtatze-neurriak ezar ditzake, fiskal nazionalek egiten duten modu berean, pertsona fisikoei edo juridikoei eskatzeko gorde ditzatela ikerketarako garrantzitsuak diren datuak edo informazioak harik eta haiek lagatzeko behar den baimen judiziala lortu arte.

50. artikulua. *Zaintzapean entregatzea.*

Europako fiskal delegatuak baimena eman dezake, Prozedura Kriminalaren Legearen arabera fiskal nazionalek egiten duten modu berean eta bere eskumeneko delitu guztietan, ikerketarako interesgarriak diren substantziak, gauzak, ekipoak, materialak edo tresnak zaintzapean zirkulatzeko edo emateko, ikertzen ari den delituaren arabera.

51. artikulua. *Mugaz haraindiko ikerketak.*

1. Mugaz haraindiko ikerketetan, Europako fiskal delegatuak erregelamenduaren 31. eta 32. artikuluetan arautzen den esleipen-sistemako arauak aplikatuko ditu ikerketa-eginbideak eta frogak lortzeko eginbideak egiteko. Nolanahi ere, elkar onartzeko tresnetara ere jo dezake, Europako arau horren 31.6 artikulurekin bat etorriz.

2. Europako fiskal delegatuak ikerketa-arduradun gisa badihardu eta beste estatu alderdi batean aplikatu behar den neurriak gure indarreko legediaren arabera baimen judiziala behar badu, neurria aplikatuko den estatuan ari den Europako fiskal delegatu laguntzaileak eskatu beharko du baimen hori, estatu horren barne-zuzenbidearekin bat etorriz. Beste estatuan ari den Europako fiskal delegatu laguntzailearen ordenamenduan baimen judizialik behar ez den kasuetan soilik eskatuko dio baimena berme-epaileari ikerketaren ardura daukan Europako fiskal delegatuak.

3. Europako fiskal delegatuak laguntzaile gisa badihardu bere egitekoan, indarreko legedian ezartzen denaren arabera hartu behar ditu eskatzen zaizkion neurriak. Neurri horietako batek baimen judiziala behar izanez gero, berme-epaileari eskatu beharko dio.

4. Europako fiskal delegatuak behar diren ikerketa-eginbideak eska ditzake lankidetzan indartuan parte hartzen duten herrialdeetatik kanpo, erregelamenduaren 103. eta 104. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorritik.

5. Artikulu honetan eta erregelamenduaren 37. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik, frogak Batasuneko beste estatu batean lortzea edo beste estatu baten zuzenbidearekin bat etorritik lortzea ez da izango haiek ez onartzeko arrazoia. Nolanahi ere, haiek baloratzeko askatasuna egongo da.

V. KAPITULUA

Kautelazko neurri errealak

52. artikulua. *Kautelazko neurri errealeen helburua eta xedea.*

1. Kautelazko neurri errealeen helburua ondare-erantzukizunak eta erantzukizun zibilak ziurtatzea da.

2. Kautelazko neurriak ikertutako edo akusatutako pertsonen ondasunei eta eskubideei aplikatzen zaizkie. Hirugarrenei ere aplikatu ahal zaizkie, lege organiko honetan arautzen diren kasuetan.

3. Prozedura Kriminalaren Legean, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean, hipoteken legedian eta gaiari lotutako gainerako xedapenetan ezartzen dena aplikatuko da, non eta lege organiko honetan ez den berariaz besterik ezartzen.

53. artikulua. *Diru-erantzukizunak ziurtatzeko neurriak.*

Pertsona jakin batek delitu bat egin duelako zantzu arrazionalik egonez gero, Europako fiskal delegatuak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, kautelazko neurriak har ditzake, dekretu bidez, haren ondoriozko diru-erantzukizun guztiak ziurtatzeko (erantzukizun zibilak, isunak eta kostuak barne), bai eta, noizbait delituaren gauzak, tresnak eta produktuak konfiskatzeko aginduz gero, konfiskazioa ziurtatzeko ere.

54. artikulua. *Pertsona juridikoei eta beste entitate batzuei aplikatu ahal zaizkien kautelazko neurriak.*

Ikerketan agerian jartzen diren zantzu arrazionalak pentsarazten badute pertsona juridiko batek erantzukizun penala duela edo enpresa, antolakunde, talde edo nortasun juridikorik gabeko pertsonen entitate edo elkarte batean edo haren laguntzarekin edo haietako baten bitartez delitua egin dela, Europako fiskal delegatuak neurri hauetako bat edo batzuk ere ezar ditzake:

- a) Jarduerak etetea.
- b) Lokalak eta establezimenduak ixtea.
- c) Judizialki esku hartzea langileen edo hartzekodunen eskubideak babesteko.
- d) Kautelaz etetea dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko eskubidea eta zergen edo Gizarte Segurantzaren arloko onurak edo pizgarriak edukitzeko eskubidea.

55. artikulua. *Hirugarren erantzule zibilei aplikatu ahal zaizkien kautelazko neurriak.*

1. Ikerketan agerian jartzen diren zantzuek pentsarazten badute balitekeela hirugarren batek erantzukizun zibila edukitzea Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoak xedatzen duenaren arabera, Europako fiskal delegatuak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, kautelazko neurriak har ditzake hori ziurtatzeko.

2. Halaber, kautelazko neurri moduan, ondasunak prebentzioz enbargatzeko edo ondasunak erabiltzea debekatzeko idatzoharra egin daiteke, zantzu arrazionalak pentsarazten badute ondasunen benetako titularra dela hirugarren erantzulea.

56. artikulua. *Legitimazioa.*

Lege organiko honetan xedatzen denaren arabera zigor-arloko prozesuan akzio zibila erabil dezaketenek eska ditzakete erantzukizun zibila ziurtatzeko kautelazko neurri errealak.

Akusazio partikularrak ere kautelazko neurriak eska ditzake isunaren eta kostuen ordainketa, konfiskatutakoaren exekuzioa eta delituaren ondare-ondorioak ziurtatzeko.

57. artikulua. *Prozedura.*

1. Kautelazko neurri errealen eskaera argia eta zehatza izan behar da; honako hauek zehaztu behar dira: zer neurri eskatzen den, neurria zer pertsona fisiko edo juridikoren kontrakoa den, zer baldintza betetzen diren neurriak ezartzeko eta bermea gutxienez zenbatekoa izan behar den.

2. Akusazio partikularrek eta auzi-jartzaile zibilek eskatzen dituzten kautelazko neurriak ez dira ezarriko haien asmoa luzaroan onartutako egitatezko egoeraren bat aldatzea denean, non eta ez den behar bezala azaltzen zergatik ez den eskatu neurria ordura arte.

3. Ikertutako pertsonaren ondare-egoeraren berri jakitea ezinbestekoa izanez gero, hark bere ondasunak aitortzeko duen betebeharra gorabehera, Europako fiskal delegatuak behar diren egiaztapenak egin ditzake bere kabuz, edo inori egiteko agindu, egoera hori argitzeko. Nolanahi ere, Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren arabera jarduketa horretarako baimen judiziala behar bada, berme-epaileak eman beharko du baimena.

58. artikulua. *Ebazpena.*

1. Ebazpena arrazoitu egin beharko da beti. Bertan neurriak ezarriko dira, eta horien araubidea zehaztuko da.

2. Ebazpenean, diru-erantzukizunei heren bat gehituta haiek estaltzeko behar den gutxieneko zenbateko likidoa finkatu behar da.

3. Gainera, behar den kasuetan, ebazpenean zerbait adierazi behar da konfiskatutako ondasunak eta gauzak behin-behinean erabiltzeaz eta haiek diru bihurtzeaz eta konfiskatutako ondasunen kontserbazioa eta administrazioa Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoaren esku uzteaz.

59. artikulua. *Ordezko kauzioa.*

Bermea ipini behar duenak Europako fiskal delegatuari eskatu ahal izango dio neurrien ordez onar dezala eman litekeen kondena-epaia beteko dela ziurtatzeko behar besteko kauzioa ematea.

Dekretu baten bidez onartu edo ukatu behar da eskaera.

60. artikulua. *Handitzea eta txikitzea.*

1. Baldin eta prozeduran zehar arrazoirik agertzen bada pentsatzeko eskatuko diren diru-erantzukizunen zenbatekoa hasieran horiek ziurtatzeko finkatutako kopurua baino gehiago izango dela, Europako fiskal delegatuak erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, hartutako kautelazko neurria zabaltzea.

2. Halaber, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, kautelazko neurria murriztu ahal izango du, baldin eta arrazoi nahikorik badago pentsatzeko aurretik finkatutako kopurua ezarriko diren diru-erantzukizunen zenbatekoa baino gehiago izango dela.

61. artikulua. *Konfiskatutako ondasunak behin-behinean erabiltzea eta aldez aurretik diru bihurtzea.*

Beharrezkotzat jotzen duenean, Europako fiskal delegatuak erabaki dezake kautelaz konfiskatutako ondasunak behin-behinean erabiltzea eta aldez aurretik diru bihurtzea, aplikatu beharreko prozesu-legediarekin bat etorritz.

Horretarako, Europako fiskal delegatuak Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoari agindu diezaioke ikertzen ari den delituaren gauzak, ondasunak, tresnak eta irabaziak aurkitzeko, gordetzeko eta administratzeko.

62. artikulua. *Ondasunak itzultzea.*

Kapitulu honetan xedatzen dena hirugarren batek dituen delituaren gauza edo tresnetako bat titular legitimoari itzuli nahi zaionean ere aplikatuko da.

63. artikulua. *Aurkaratzeko eta errekurtsioak aurkezteko araubidea.*

1. Europako fiskal delegatuak kautelazko neurri errealez ematen dituen dekretuak 91. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz aurkara daitezke.

2. Berme-epaileak intzidentea ebazteko ematen duen ebazpenaren aurka apelazio-errekurtsioa aurkez daiteke.

IV. TITULUA

Ikerketaren kontrol judiziala

I. KAPITULUA

Sekretuaren deklarazioa

64. artikulua. *Kasuak.*

1. Ikerketa-eginbideak eraginkorrak izateko nahitaezkoa bada, Europako fiskal delegatuak erabaki dezake ikerketa-prozedura osoa edo zati bat sekretua izatea.

2. Halakoetan, Europako fiskal delegatuak berehala bidaliko dio berme-epaileari eginbideak sekretuak direla deklaratzeko duen dekretua; horrekin batera, erabakia hartzeko kontuan eduki dituen dokumentuak eta elementuak ere helaraziko dizkio. Gainera, sekretuak bere ustez zenbat iraun behar duen adieraziko dio, eta horretarako arrazoiak azalduko dizkio.

65. artikulua. *Ebazpena.*

Berrogeita zortzi orduko epealdian berme-epaileak sekretuaren deklarazioa berretsi edo kenduko du; berresten badu, sekretuaren iraupena finkatuko du, haren xedeak benetan beteko direla ziurtatuta.

66. artikulua. *Luzapena.*

1. Gerora gertatutako ezohiko inguruabarrak direla-eta sekretuari eutsi behar bazaio, ezarritako epealdia amaitu aurretik Europako fiskal delegatuak luzapena eska diezaioke berme-epaileari, arrazoiak azalduta, eta hark ikerketa-beharrizanen arabera hartuko du erabakia.

2. Artikulu honetan arautzen diren ebazpen judizialen aurka ezin da aurkeztu errekurtsorik.

67. artikulua. *Sekretuaren araubidea.*

1. Sekretuaren deklarazioak eragotzi egingo du pertsonatutako alderdiek —Europako fiskal delegatuak ez beste guztiek— deklarazioaren eraginpean dauden jarduketan berri edukitzea eta eginbideetan parte hartzea.

2. Halako kasuetan, kautelazko neurriak ezartzen dituen autoan edo baimen judiziala behar duten ikerketa-eginbideak egitea erabakitzen den autoan zehaztuko da zer partikularri ez zaion bidali behar jakinarazpen-kopiarik, sekretuaren xedeari eusteko.

Nolanahi ere, ikertutako pertsona behin-behinean espetxeratzea erabakitzen bada eta eginbideak sekretupean badaude, hari eta beraren defendatzaileari askatasunaz gabetzearen aurka egiteko behar diren funtsezko elementuak bidaliko zaizkie.

Sekretua kentzen denean, auto osoa berehala jakinaraziko zaio ikertutako pertsonari.

68. artikulua. *Sekretua kentzea.*

1. Sekretua azkentzen duen dekretuan, defentsari eta pertsonatutako gainerako alderdiei egin diren eta ordura arte ikusi ezin izan dituzten eginbideak erakusteko aginduko da. Eman ondoren, berehala jakinaraziko zaio dekretua berme-epaileari.

2. Sekretuak ikertutakoaren lehen agerraldia eragotzi badu, berehala egingo da, 28. artikuluan ezartzen den bezala, eta jarduketa guztiak erakutsiko zaizkio defentsari.

3. Sekretua kentzen ez bada, haren iraupena amaitu ondoren egiten diren jarduketak eta egintza prozesalak deusezak izango dira.

4. Sekretua kendu ondoren ezin izango da erabaki ikerketa-prozedura amaitzea pertsonatutako alderdiek aski denbora eduki ez badute (gutxienez hogeitun egun) egindako guztiaren berri jakin eta beren eskubideak eraginkortasunarekin erabiltzeko.

II. KAPITULUA

Epailearen baimena ikerketa-eginbideak egiteko

69. artikulua. *Eginbidea eskatzeko legitimazioa.*

Egin beharreko ikerketa-eginbideren batek baimen judiziala behar badu, Europako fiskal delegatuak dagokion eskaera egingo du, ofizioz edo akusazio batek eskatuta.

Eginbidearen izaera dela-eta beharrezkoa izanez gero, jarduketak (denak edo batzuk) sekretuak izatea erabakiko da.

70. artikulua. *Europako fiskal delegatuaren eskaera.*

1. Europako fiskal delegatuak berme-epaileari bidaltzen dion eskaeran ongi frogatu behar da dena delako ikerketa-eginbidea egitea erabakitzeko Prozedura Kriminalaren Legean eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla.

2. Baimenaren eskaerarekin batera, egin nahi den eginbidea beharrezkoa dela frogatzen duten dokumentuak eta elementuak aurkeztu behar dira.

71. artikulua. *Ebazpena.*

1. Eskaera eta harekin batera aurkeztutako elementuak aztertu ondoren epaileak hogeita lau orduko epealdian ebazpena emango du egin nahi den eginbideaz eta, behar denean, jarduketan sekretuaz.

2. Ikerketa-eginbidea baimentzen duen ebazpenean, hura nola egin behar den ezarriko da, Prozedura Kriminalaren Legean eginbide horretaz ezartzen denarekin bat etorriz.

Halaber, ebazpen horretan ezarriko da nola eta zenbatean behin emango dion Europako fiskal delegatuak berme-epaileari neurriaren aplikazioaren eta emaitzen berri kontrol judiziala behar bezalakoa dela ziurtatzeko.

3. Baimena ukatzen duen ebazpenaren aurka apelazio-errekurtsoa aurkez dezake Europako fiskal delegatuak.

Kasu horretan, baldin eta Europako fiskal delegatuak jarduketak sekretupean egotea erabaki badu, hala egongo dira errekurtsoa ebatzi arte.

72. artikulua. *Luzapen-eskaera.*

Neurriaren baimenak iraunaldia ezarrita badauka eta legediaren arabera hori luzatu ahal bada, Europako fiskal delegatuak dagokion eskaera bidaliko dio berme-epaileari; eskaera Prozedura Kriminalaren Legean ezartzen den bezala egin behar da, eta bertan finkatutako epealdian bidali.

73. artikulua. *Gertaera edo pertsona gehiago ikertzea.*

1. Bera eragin duen delitu-egitatea ikertzeko baino ez da izango baimen judiziala.
2. Baldin eta ikerketa-prozeduran beste egitate zigorgarriren bat agertzen bada edo sumatzen bada beste pertsona batzuek ere parte hartu dutela, Europako fiskal delegatuak berehala eskatu beharko du baimen judiziala egitate edo pertsona horiek ikerketan sartzeko.

Baimena emanaz gero, ordura arteko ikerketei ere aplikatuko zaie.

74. artikulua. *Neurria aplikatzea eta epaileak gainbegiratzea.*

1. Eginbidea egiteko edo luzatzeko baimena eman ondoren, berme-epaileak baimenean ezartzen duenari zorrotz jarraikiz egingo du ikerketa Europako fiskal delegatuak.

2. Nolanahi ere, Europako fiskal delegatuak ikerketa-eginbidea egiteko ahalmena eman diezaieke Polizia Judizialeko funtzionarioei edo agenteei.

Halakoetan, Polizia Judizialak neurriaren aplikazioaren eta emaitzen berri emango dio Europako fiskal delegatuari; fiskal delegatuak esango du zenbatean behin.

75. artikulua. *Neurria etetea.*

1. Baimen judiziala behar duten ikerketa-eginbideak bertan behera geldituko dira:

- a) neurria ezartzea eragin duten inguruabarrak desagertuz gero;
- b) baimenean ezarritako epea amaituz gero;
- c) ikerketaren sekretuaren gehieneko epea igaroz gero;
- d) ikertutako pertsona atxilotuz gero.

2. Kasu horietan guztietan, Europako fiskal delegatuak neurria kentzeko aginduko du, eta horren berri emango dio berme-epaileari.

76. artikulua. *Ikertutako pertsonari jakinaraztea.*

1. Ikerketa-eginbidea egin (eta, behar den kasuetan, sekretua kendu) ondoren, ikertutako pertsonari erabakitako neurria jakinaraziko zaio, lortutako informazioen kopia emango zaio, eta, hori ezinezkoa bada, egindako jarduketan berri emango zaio, defentsarako eskubidea erabat babesteko.

2. Ikertutako pertsonaren eta neurriak eragiten dien hirugarrenen intimitaterako eskubidea babesteko, Europako fiskal delegatuak zehaztuko du ikerketan zehar lortutako informazioetatik zein ez diren sartuko prozeduran ikerketarako interesik ez dutela eta. Hala ere, alderdiren batek eskatzen badu horiek ere prozeduran sartzeko defentsarako eskubidea modu eraginkorrean erabiltzeko beharrezkoak direla eta, berme-epaileak Europako fiskal delegatuari entzungo dio, eta gero ebazpena emango du.

Berme-epailearen ebazpenaren aurka ezin izango da jarri errekurtsorik.

III. KAPITULUA

Kautelazko neurri pertsonalak ezartzeko eta luzatzeko prozedura

77. artikulua. *Kautelazko neurri pertsonalak.*

Europako fiskal delegatuak berme-epaileari eska diezaioke ezar dezala Prozedura Kriminalaren Legearen arabera baimen judiziala behar duen kautelazko edozein neurri pertsonal.

78. artikulua. *Atxilotzea.*

1. Europako fiskal delegatuak, bere eskumeneko auzietan, ikertutako pertsonak atxilotzeko agindu dezake, Prozedura Kriminalaren Legearen 492. artikuluan arautzen diren kasuetan.

Ikertutako pertsona atxilotzeko agintzen duen dekretua berari eta beraren defendatzaileari jakinaraziko zaie, eta horiek berme-epailearen aurrean aurkara dezakete, lege organiko honen 91. artikuluan ezartzen den prozedurari jarraikiz.

Baldin eta ikertutako pertsona Europako fiskal delegatuak eskatuta atxilotzen badute, Polizia Judizialak haren esku utzi beharko du berehala, atxilotu eta hogeita lau ordu igaro aurretik betiere.

2. Baldin eta ikerketa polizial baten ondorioz pertsona bat atxilotzen badute (bakarrik edo beste batzuekin batera) eta Europako fiskal delegatuaren eskumeneko delitua egotzen bazaio baina atxilotzeko agindua beste batek eman badu, aurreko apartatuan ezartzen den araua aplikatuko da, atxilotua Europako fiskal delegatuaren esku ipiniko da berehala eta atxilotetaren arrazoien berri emango zaio Europako fiskal delegatuari.

79. artikulua. *Legitimazioa.*

Kautelazko neurri pertsonalak ezartzeko edo haien indarraldia luzatzeko, Europako fiskal delegatuak edo pertsonatutako akusazio-alderdiren batek eskatu behar du, lege organiko honetan arautzen diren salbuespen-kasuetan izan ezik.

80. artikulua. *Eskaera.*

1. Kautelazko neurri pertsonalak ezartzeko edo haien indarraldia luzatzeko eskaeran, honako hauek zehaztu behar dira: neurriaren beharra justifikatzen duten egitateak, zantzuak eta helburua, eta zergatik ezin den helburu hori lortu neurri arinago batekin. Eskaerarekin batera funtsezko froga-elementuak aurkeztu behar dira.

2. Kautelazko neurria ezartzeko edo haren indarraldia luzatzeko eskatuz gero, egitateak eta zantzuak azalarazi dituzten ikerketa-egintzak banakaturik xehatu behar dira eskaeran, eta horien frogagiriak aurkeztu edo zehaztasunarekin identifikatu behar dira, eta berme-epaileari aztertzeke astia edukitzeko moduan helarazi behar zaio eskaera.

81. artikulua. *Alderdien agerraldia.*

1. Kautelazko neurri pertsonala ezartzeko edo haren indarraldia luzatzeko eskaera aurkeztu ondoren, agerraldi baterako deia egingo zaie Europako fiskal delegatuari eta pertsonatutako alderdiei. Agerraldi hori eskaera aurkezten denetik hirurogeita hamabi ordu igaro aurretik egin beharko da.

2. Ezinbestekoa da agerraldian Europako fiskal delegatua eta neurria aplikatu nahi zaion pertsona egotea (pertsona horrek bere defendatzailea eduki beharko du ondoan, laguntzeko).

3. Agerraldia Europako fiskal delegatuaren alegazioekin hasiko da. Ondoren, gainerako alderdiek hitz egingo dute, eta, azkenik, neurria aplikatu nahi zaion pertsonak. Alegazioak ikusita Europako fiskal delegatuak atzera egiten badu eskaeran, entzunaldia amaitutzat joko da.

4. Alderdiek nahi dituzten probak proposatu ahal izango dituzte. Onartuz gero, entzunaldi-egintzan egingo dira edo, bestela, organo judizialak ezartzen duen epealdiaren barruan (hirurogeita hamabi ordu gehienez). Beharrezkoak ez diren probak ezetsiko dira, eta egintzan bertan edo ezarritako epealdiaren barruan egin ezin direnak ere bai.

5. Proba bat egiteko entzunaldia bertan behera gelditzea erabaki behar bada, berme-epaileak, alderdi batek eskatuta, geroraezintzat jotzen duen kautelazko neurria ezarri ahal izango du, 83. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz.

6. Proba egin ondoren, organo judizialak kautelazko neurriari buruzko ebazpena emango du, auto arrazoitu baten bidez.

Kautelazko neurriari buruzko ebazpena ematen duen autoaren aurka apelazio-errekurtsoa aurkez daiteke. Errekurtso horrek ez du entzunaldia etengo.

82. artikulua. *Ebazpen judiziala.*

1. Kautelazko neurriari buruzko ebazpen judizialean ezin izango dira kontuan hartu haiek eskatzen dituzten alderdiek aipatutakoak baino larriagoak diren delitu-egitateak, ez eta beste helbururik ere. Gainerakoan, berme-epaileak askatasuna edukiko du bere erabakia oinarritzeko, eztabaidatutako egiteak, eginbideak eta dokumentuak kontuan hartuz.

2. Ezin da ezarri berariaz eskatutakoa baino larriagoa den kautelazko neurriarik. Hala ere, agerraldian organo judizialak hain larriak ez diren kautelazko neurriak ezartzeko aukera jar dezake alderdien eztabaidarako, eta egiten diren alegazioen arabera uste badu horiekin ere lortu nahi diren helburuak lortuko direla, ezarri egingo ditu.

3. Nolanahi ere, behin-behineko espetxealdia eskatzen bada, organo judizialak, horren ordez, kausioa eskatuta behin-behinean aske uztea erabaki ahal izango du (horretarako, alderdiek kausioaren zenbatekoaz zer dioten entzun behar du), edo, bestela, behar bezala eztabaidatutako jokabide-arau batzuk ezarrita erabaki dezake behin-behinean aske uztea.

83. artikulua. *Presazko kasuak.*

81. artikuluan aipatzen den entzunaldia ezin bada egin edo presazko arrazoiak gertatzen badira, berme-epaileak, alderdi batek eskatuta eta Europako fiskal delegatuari entzun ondoren, geroraezintzat jotzen duen kautelazko neurria ezarri ahal izango du, justifikatzen duten inguruabarrak gertatuz gero, eta berriz ere entzunaldirako deia egingo du (hirurogeita hamabi ordu igaro aurretik egin beharko da entzunaldia).

84. artikulua. *Atxilotetako arau bereziak.*

1. Pertsona atxilotuta badago, hura epailearen esku jartzen denean hasiko da 81. artikuluan aipatzen den hirurogeita hamabi orduko epealdia.

Atxilotua beraren esku jartzen dutenetik hirurogeita hamabi ordu pasatu baino lehen, berme-epaileak haren egoera pertsonalari buruzko ebazpena emango du: atxilotua espetxeratzeko edo aske uzteko aginduko du.

2. Atxilotua ezin bada ipini prozeduraren ardura daukan berme-epailearen esku prebentzios atxilotzen dutenetik hirurogeita hamabi ordu igaro aurretik, hura atxilotu duten tokiko instrukzio-epailearen esku utziko da, eta hark hirurogeita hamabi ordu edukiko ditu atxilotua espetxeratzeko edo aske uzteko agintzeko, kasuan kasukoa.

Kasu horretan, behin-behinean espetxeratzea erabaki bada, berme-epaileak, eginbideak jaso ondoren, 81. artikuluan aipatzen den agerraldira deituko die alderdiei.

85. artikulua. *Sekretuaren deklarazioa eta behin-behineko espetxealdia.*

1. Auzia sekretu deklaratu bada eta eskatutako kautelazko neurria behin-behineko espetxealdia bada, Europako fiskal delegatuak, neurriaren eskaerarekin batera, honako hauek ere aurkeztuko ditu: askatasunaz gabetzea edo ez ebazteko eta, behar denean, neurri hori legezkoa ez delakoan aurkaratzeko ezinbestekoak diren jarduketan elementuak.

2. Ikertutako pertsonak elementu horiek eskuratzeko eskubidea du agerraldira deitzen diotenetik.

86. artikulua. *Neurrien kontrol judiziala.*

1. Kautelazko neurria ezartzen duen ebazpenean, berme-epaileak hura betetzeko kontrol-baldintzak eta haren iraupena finkatuko ditu. Legitimatutako alderdiek, era berean, kautelazko neurriak aldatzeko edo kentzeko eska dezakete.

2. Ezarritako kautelazko neurri bat aldatzeko eskaeraren helburua neurri hura larritzea bada, edo haren ordez beste neurri bat ezartzea bada, larriagoa, 81. artikuluan arautzen den agerraldia egin ondoren hartuko du berme-epaileak erabakia. Auzipetutako pertsona edo pertsonatutako akusazioetako bat ez agertzeak, horretarako bidezko arrazoirik ematen ez badu, ez du eragotziko agerraldia, zitazioa behar bezala egin bada.

Prozesuan zehar ofizios edo alderdi batek eskatuta berme-epaileak erabakitzen badu kautelazko neurri bat kendu behar dela edo auzipetuari kalte gutxiago egiten dion beste bat ezarri behar dela horren ordez, horretarako ebazpena eman ahal izango du alderdiak entzun ondoren, eta ez da beharko beste agerraldirik.

87. artikulua. *Neurriak ez betetzea.*

1. Ezarritako kautelazko neurriak betetzen ez badira, neurri larriagoak ezarri ahal izango dira, haien ordez edo haiei gehituz. Neurri berriak ez-betetzearen garrantziaren, azaldutako arrazoiaren, eta kasuaren larritasunaren eta gainerako inguruabarren arabera izango dira. Hasieran ezarritako neurriak ez betetzea ez da nahiko izango neurri larriagoak ezartzeko.

2. Neurri berriak egokiak izan behar dira justifikatzen dituzten kautelazko helburuak lortzeko. Haien ezartzeko, hasierakoak ezartzeko aplikatutako prozedura bera aplikatuko da.

88. artikulua. *Ikerketa-prozeduran ezarritako neurriak azkentzea.*

Kautelazko neurriak arrazoi hauengatik azkenduko dira:

- a) Neurria ezartzea justifikatu duen egoera desagertzeagatik.
- b) Neurriaren gehieneko iraunaldia amaitzeagatik.
- c) Epaileak gehieneko epealdiak baino epealdi laburragoak ezarri dituen kasuan, neurrien epealdi laburrago horiek amaitzeagatik eta ez luzatzeagatik.
- d) Auzia artxibatzeagatik edo largesteagatik.

89. artikulua. *Apelazio-errekurtsoaren berezitasunak behin-behineko espetxealdiari dagokionez.*

1. Behin-behineko espetxealdiari buruzko ebazpenen aurka apelazio-errekurtsoa aurkez daiteke. Errekurtso horrek ez du etengo ebazpena.

2. Ebazpenaren aurkako errekurtsoa aurkeztu dela-eta ezin izango da behin-behineko espetxealdia agindu, ez espetxealdia larritu, ebazpenaren eraginpeko pertsonari ikustaldian bertatik bertara entzun gabe.

3. Behin-behineko espetxealdia ukatzen edo agintzen edo hura larritzen duen ebazpenaren aurka aurkezten diren errekurtsoak eta ofizios berrikusteko aldian behingo izapidean espetxealdia mantentzeko agintzen duen ebazpenaren aurka aurkezten direnak lehenetsunekoak izango dira, eta hamar egun igaro baino lehen ebatzi behar dira.

IV. KAPITULUA

Europako fiskal delegatuaren dekretuak aurkaratzea

90. artikulua. *Kasuak.*

Europako fiskal delegatuak ikerketa-prozeduran ematen dituen dekretuak lege organiko honetan berariaz arautzen diren kasuetan bakarrik aurkara daitezke berme-epailearen aurrean.

91. artikulua. *Prozedura.*

1. Dekretuak idatziz aurkaratu behar dira, eta idazkia eskatzailearen ordezkariak sinatu behar du. Horretarako, bost eguneko epealdia egongo da, Europako fiskal delegatuaren dekretua jakinarazten den egunetik aurrera. Idazkian, azaldu behar da zergatik aurkaratzen den dekretua, eta ebazpena emateko kontuan eduki beharreko partikularrak aipatu behar dira. Gainera, behar den kasuetan, egindako eskaerak justifikatzen dituzten dokumentuak aurkeztu behar dira idazkiarekin batera.

2. Aurkaratzea onartu ondoren, Justizia Administrazioaren legelariak horren berri emango die Europako fiskal delegatuari eta pertsonatutako gainerako alderdiei, eta bost eguneko epealdia emango die denei nahi dutena alegatzeko idatziz, kontuan hartu beharreko beste partikular batzuk aipatzeko eta beren uziak justifikatzen dituzten dokumentuak aurkezteko.

Berme-epaileak aipatu diren partikular guztiak aztertu ahal izango ditu, eta, behar izanez gero, behar dituen informazioak edo argibideak eskatuko dizkie alderdiei, eta, besterik gabe, aurkaratzeari buruzko ebazpena emango du hurrengo bost egunetan.

3. Aurkaratzeari buruzko autoaren aurka alderdiek ezin izango dute aurkeztu errekurtsorik.

V. KAPITULUA

Berme-epailearen autoen kontrako apelazio-errekurtsoa

92. artikulua. *Organo eskuduna.*

Kapitulu honetan arautzen den errekurtsoaz arduratzeko eskumena Auzitegi Nazionalaren Zigor Arloko Salak dauka.

Forudunik egonez gero, eskumen hori Auzitegi Gorenean eta justizia-auzitegi nagusietan honelako errekurtsoak ebazteko eratzen diren salek edukiko dute.

93. artikulua. *Errekurtsoa aurkeztu ahal zaien ebazpenak.*

Lege organiko honetan berariaz arautzen diren kasuetan baino ezin izango da aurkeztu apelazio-errekurtsoa autoaren kontra.

94. artikulua. *Aurkezteko modua eta epealdia.*

1. Apelazio-errekurtsoa idatziz aurkeztu behar da, autoa jakinarazi ondoko bost egunetan.

2. Idazkian, errekurtsoa zergatik aurkezten den azaldu behar da, eta ebazpena emateko kontuan eduki beharreko inguruabarrak aipatu behar dira. Gainera, behar den kasuetan, egindako eskaerak justifikatzen dituzten dokumentuak aurkeztu behar dira idazkiarekin batera.

Errekurtsoa onartzeak ez du etengo prozedura.

95. artikulua. *Prozedura.*

1. Justizia Administrazioaren legelariak errekurtsua onartuko du. Ondoren, pertsonatutako gainerako alderdiei jakinaraziko die, eta adieraziko die hiru eguneko epealdia dutela aurkaratzeko edo atxikitzeko, nahi dutena idatziz alegatuz eta kontuan hartu beharreko inguruabarrak aipatuz edo beren eskaerak justifikatzen dituzten dokumentuak aurkeztuz.

2. Epealdia amaitu ondoko hiru egunetan Justizia Administrazioaren legelariak auzitegiaren esku ipiniko du errekurtsuaren dokumentazioa, eta hark ebazpena emango du beste izapiderik egin gabe.

3. Auzitegiak ebazpen zuzena emateko beharrezkotzat jotzen badu, ikustaldia egingo da. Justizia Administrazioaren legelariak aukeran duen lehen eguna izendatuko du ikustaldia egiteko, eta, betiere, hurrengo hamar egunen barruan egiteko.

4. Errekurtsua auto baten bidez ebartziko da, dokumentazioa auzitegiaren esku jarri edo ikustaldia egin ondoko bost egunetan.

5. Izapidetzeko lehentasuna edukiko dute kautelazko neurriez ematen diren autoen aurka eta ikerketa-eginbideak egiteari buruz ematen diren autoen aurka aurkezten diren errekurtsuok.

VI. KAPITULUA

Froga-iturriak ziurtatzeko intzidentea

96. artikulua. *Intzidentearen xedea eta intzidentea bidezkoa den kasuak.*

1. Alderdiek froga-iturriak ziurtatzeko intzidentea susta dezakete ahozko epaiketan erabiltzeko prest ez direla egongo sumatu bezain laster.

2. Eskatuz gero, honako froga-iturri hauek ziurtatuko dira jarraian azaltzen diren inguruabarrak gertatzen direnean:

a) Lekuko edo peritu baten deklarazioa, nahiko arrazoi dagoenean pentsatzeko lekuko edo peritua ahozko epaiketan ezin izango dela izan edo ezin izango duela lekukotza baliodunik eman, justifikatuta edo ezinbestean epaiketa huts egingo duelako, hiltzeko arriskua izango duelako edo ezintasun fisikoa duelako.

b) Lekuko edo peritu baten deklarazioa, nahiko arrazoi dagoenean pentsatzeko lekuko edo perituari mehatxuak larriak egingo dizkiotela edo hertsatuko dutela ahozko epaiketan deklarazioa aldatzeko.

c) Lekuko baten deklarazioa, adina edo desgaitasuna dela-eta lekukoari lege organiko honetan ezartzen denaren arabera alderdien kontraesaneko azterketa egin ezin zaionean.

d) Ikertutako pertsonaren deklarazioa, a) eta b) letretako kasuetan, beste pertsona batzuen erantzukizun kriminalari dagokionez.

3. Froga ziurtatzeko intzidentearen emaitza kasu honetan soilik helduko da ahozko epaiketara: intzidentea eragin duen froga-iturria baliagarri ez dagoenean.

97. artikulua. *Eskumena.*

Berme-epaileari noiznahi eska dakioke intzidentearen izapidea egiteko epaitze-organoren aurrera deitu aurretik.

98. artikulua. *Legitimazioa.*

Honako hauek eskatu ahal diete berme-epaileari froga-iturriak ziurtatzeko:

- Europako fiskal delegatuak, ofizioz edo akusazio batek eskatuta.
- Ikertutako pertsonak.

99. artikulua. *Akusazioen eskaera ikerketan.*

1. Ikerketan pertsonatzen diren akusazioek intzidentea sustatzeko eska diezaioke Europako fiskal delegatuari.

2. Europako fiskal delegatuak dekretu arrazoitu baten bidez ebatziko du zer egin eskaeraz.

3. Ebazpenak eskaera ezesten badu, akusazioek berme-epailearen aurrean aurkaratu ahal izango dute, bost eguneko epealdian, baina justifikatu behar dute froga ziurtatzea objektiboki ezinbestekoa dela akusazioaren nahiari eusteko.

Ebazpena 91. artikuluan ezarrita dauden izapideen bidez aurkaratu behar da.

Epaileak froga ziurtatzeko eginbidea egin edo ez erabakiko du, eta erabaki horren aurka ezin aurkeztu izango da errekursorik.

4. Aurreko apartatuan ezartzen dena gorabehera, akusazioek epaile eskudunari eska diezaioke, zuzenean, intzidentearen izapidea egiteko presazko arrazoiak daudenean.

Halakoetan, presa dagoela frogatzen duten elementuak aurkeztu behar dituzte.

100. artikulua. *Eskaera-idazkia.*

Intzidentea izapidetzeko eskatzen den idazkian honako hauek adierazi behar dira:

a) Ziurtatu nahi den froga-iturria; iturriaren xede diren egitateak zehaztu behar dira, eta ikertutako egitateekin duten lotura argitu.

b) Intzidentea izapidetzeko zergatia.

c) Froga-iturria ziurtatzeko erabili behar diren prozedurako partikularrak.

101. artikulua. *Alderdien alegazioak.*

1. Eskaera jaso ondoren, Justizia Administrazioaren legelariak pertsonatutako alderdiei eta Europako fiskal delegatuari helaraziko die hura, eta hiru eguneko epealdia emango die eskaera onargarria eta bidezkoa ote den alegazioak aurkezteko, eta, beharrezkoa izanez gero, haren xede izan behar diren beste egitate batzuk adierazteko.

2. Aurkezten diren idazkiak eta dokumentuak eta izendatzen diren partikularrak alderdien esku egongo dira, aztertu nahi badituzte ere.

102. artikulua. *Ebazpena.*

1. Alderdiek alegazioak egin ondoren, berme-epaileak ebazpena emango du auto batean.

2. Froga-iturria ziurtatzea erabakitzeko autoan, honako hauek zehaztu behar dira:

a) Zer egitate diren haren xede; alderdiek eskatutakoari atxiki behar zaizkio.

b) Zer pertsonari deitu behar zaien iturria ziurtatzeko agerraldira.

c) Zer egunetan egingo den froga ziurtatzeko agerraldia.

3. Autoa berehala jakinaraziko zaie Europako fiskal delegatuari eta pertsonatutako alderdiei, eta horren bidez agerraldirako deialdia egingo zaie.

4. Epailearen erabakiaren aurka ezin izango da jarri errekursorik.

103. artikulua. *Presazko kasuak.*

Berme-epaileak froga-iturria berehala ziurtatzeko agindu ahal izango du, inguruabarrak direla-eta beharrezkoa izanez gero.

104. artikulua. *Froga-iturria ziurtatzea.*

1. Froga-iturria ziurtatzeko agerraldia berme-epailearen aurrean egin behar da nahitaez. Agerraldi horretara pertsonatutako alderdi guztiei deituko zaie.

Eginbide horretan, Prozedura Kriminalaren Legearen ahozko epaiketaren atalean lekuko bidezko frogak edo peritu bidezko frogak egiteko ezartzen diren xedapenak aplikatuko dira.

2. Ikertutako pertsonak bidezko arrazoirik gabe agerraldia huts egiteak ez du eragotziko egintza, froga presaka ziurtatzeko arrazoiak egonez gero. Nolanahi ere, uste bada ikertutako pertsonak agerraldian egon behar duela, hura atxilotu eta eramateko agindu ahal izango da.

3. Ikertutako pertsonaren defendatzaileak agerraldia huts egiten badu bidezko arrazoirik gabe, edo froga presaka ziurtatzeko arrazoiak badaude eta defendatzailea agerraldira ezin bada joan, berariaz izendatzen den ofiziozko txandako defendatzailea ariko da egintzan.

4. Akusazio partikularrak edo haien legelariak bidezko arrazoirik eman gabe agerraldia huts egiteak ez du eragotziko egintza, froga presaka ziurtatzeko arrazoiak egonez gero.

105. artikulua. *Dokumentuan jasotzea.*

1. Froga-iturria ziurtatzeko intzidentean egiten den guztia dokumentu batean bilduko da. Dokumentuaren euskarriak aukera eman behar du soinua eta irudia erreproduzitzeko. Egintzaren edukia akta batean transkribatuko da, eta Justizia Administrazioaren legelariak egiletsiko du.

2. Jatorrizko euskarria eta akta bulego judizialeko protokoloan sartuko dira, eta horien benetako kopiak ikerketa-prozedurari erantsiko zaizkio.

106. artikulua. *Ziurtatutako froga zabaltzeko intzidentea.*

1. Baldin eta froga-iturria ziurtatzeko intzidentearen izapidea egin ondoren lekuko edo peritu baten sinesgarritasuna edo beraren informazioen fidagarritasuna ebaluatzeko kontuan hartu beharreko egitate berriak agertzen badira, alderdi interesdunak deklarazioa zabaltzeko eskatu ahal izango du.

2. Horretarako, deklarazioa zabaltzeko eskatzen den idazkian honako hauek zehaztuko dira: zer egitate berri atzeman diren, zer iturritatik jakin den horien berri eta zergatik duten eragina egitate berriek lekukoaren sinesgarritasunean edo berak emandako informazioaren fidagarritasunean. Horrez gainera, azaldu behar da zergatik den beharrezkoa deklarazioa zabaltzea defentsarako eskubidea ongi erabiltzeko.

3. Eskaera hori 101. eta 102. artikuluetako prozedurari jarraituz egin behar da.

4. Eskatutakoa onartuz gero, froga eta beraren dokumentazioa titulu honetan ezartzen den bezala egingo dira.

V. TITULUA

Ikerketa-prozedura amaitzea

I. KAPITULUA

Agintaritza nazionalera bidalita amaitzea

107. artikulua. *Eskumenik eduki ez eta jarduketak agintaritza nazionalera bidaltzea.*

Baldin eta erregelamenduaren 34. artikuluan xedatzen denaren arabera Europako fiskal delegatuak uste badu ikertzen ari diren egitatea ez dela bere jurisdikzioko edo eskumeneko delitua, edo eskumen hori erabiltzeko eskatzen diren baldintzak ez direla betetzen, Estatuko Fiskaltza Nagusiari jakinaraziko dio, eta hark eskumena daukan instrukzio-organoari bidaliko dio prozedura, Prozedura Kriminalaren Legearen arabera aurrera egiteko.

Ordura arte Europako fiskal delegatuaren aurreko prozeduran egindako jarduketak guztiz baliodunak izango dira. Jarduketetan ez da atzera egingo, agintaritza nazionalaren aurrean prozeduran aurrera egiteko ezinbestekoa izan ezean.

108. artikulua. *Prozedura moldatzea.*

Baldin eta erregelamenduaren 25. artikulua 2. eta 3. apartatuetan ezartzen dena egiaztatzen ez bada edo horren 34. artikulua 3. apartatuan ezartzen dena aplikatzen bada eta ondorioz Europako fiskal delegatuak erabakitzen badu ez duela aurrera egingo egitateak ikertzeko prozeduran, egindakoaren berri emango dio Estatuko Fiskaltza Nagusiari, bidegabeko luzamenduetan ibili gabe, eta hark, hogeita hamar egun igaro baino lehen, gaia onartzen duen ala ez erabaki beharko du dekretu baten bidez, artikulua beraren 5. apartatuarekin bat etorritik.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak erabakitzen badu auzia bereganatzea, espedientea jaso ondoren, aurreko artikuluan ezartzen dena egingo da. Auzia onartzen ez badu, Europako fiskal delegatuak aurrera egingo du izapideetan, hurrengo artikuluetan ezartzen denarekin bat etorritik.

II. KAPITULUA

Ikerketa amaitzea

109. artikulua. *Prozedura amaitzeko dekretua.*

1. Behar diren eginbide guztiak egin ondoren, Europako fiskal delegatuak prozedura amaitzeko dekretua emango du; bertan ebazpen hauetako bat hartuko du:

a) Akzio penala artxibatzea, bidegabekoa dela eta, erregelamenduaren 39.1 artikuluan arautzen diren kasuetan.

b) Adostasun-epaia eman dadila eskatzea. Horretarako, akusazio-idazki bat aurkeztuko dio epaitzeko eskumena daukan epaileari edo auzitegiari, auzipetutako pertsonaren defentsak ere sinatua.

c) Ahozko epaiketa eskatzea, akusazio-idazkia aurkeztuz.

d) Akzio penala erabiltzea Batasuneko beste estatu bateko agintaritza judizialen aurrean, eta Espainiako prozedura artxibatzea.

2. Dena dela prozedura amaitzeko dekretuaren ebazpena, dekretua ikertutako pertsonaren defentsari jakinaraziko zaio, eta pertsonatu ez diren biktimei eta pertsonatutako akusazioei ere bai.

110. artikulua. *Adostasuna.*

1. Europako fiskal delegatuak epaitzeko eskumena daukan epaileari edo auzitegiari eska diezaioke adostasun-epaia eman dezala; horretarako, baterako idazki bat aurkeztu behar du, lege organiko honek 115. artikuluan ezartzen duen edukia duena.

2. Idazki hori hauek sinatu behar dute: fiskalak, akusazioen legelariak, auzipetuak, beraren defendatzaileak eta, behar denean, auzi-jartzaile zibilek eta erantzukizun zibila duten hirugarrenek.

3. Eskaerarekin batera nahitaez aurkeztu beharko da krimena gertatu delako zantzu arrazionalak daudelako justifikazioa (ikertutako pertsonak egitateak onartze hutsa ez beste zantzu batzuk), eta ezin eman izango zaie adostasunik sei urtetik gorako espetxealdizigorrei.

4. Alderdi guztiek egitateen deskripzioa onartu ondoren epaileak edo auzitegiak uste badu onartutako kalifikazioa zuzena dela eta kalifikazio horren arabera zigorra bidezkoa dela, kalifikazio horren arabera epaia emango du.

Nolanahi ere, aurretik epaileak edo auzitegiak akusatua entzun behar du, adostasuna askatasunez eta ondorioen jakitun dela eman duen argitzeko.

5. Epailleak edo auzitegiak uste badu legezko oztopo bat dagoela erabakia onesteko, edo ikertutakoak epailearen aurrean ez badu adostasuna berresten erabakia formulatu den modu berean, auzia Europako fiskal delegatuari itzuliko zaio, eta hark aurrera egingo du izapideetan.

111. artikulua. *Ekintza bidezkoa izan ez eta prozedura artxibatzea.*

1. Erregelamenduaren 39. artikuluan 1. apartatuan xedatzen denarekin bat etorritik, Europako fiskal delegatuak, uste badu ez dagoela nahiko elementu akzio penala abian jartzeko, dekretu baten bidez erabakiko du prozedura amaitzea eta artxibatzea. Dekretuan honako hauek zehaztuko ditu: ikertutako egitatea, egindako eginbideen emaitza, eta akzio penala abian ez jartzeko erabakiaren oinarri juridikoak.

2. Prozedura osorik artxibatu daiteke edo, bestela, haren zati bat bakarrik, bai ikertutako egitatei dagokienez, bai ikertutako pertsonari dagokienez; hala denean, Europako fiskal delegatuak aurreko artikuluan ezartzen diren ebazpenetako bat hartuko du gainerakoei buruz.

3. Ebazpena delituaren biktimei jakinaraziko zaie, nahiz eta prozeduran pertsonatu gabe egon, lege organiko honen 113. artikuluan ezartzen diren helburuetarako.

112. artikulua. *Agintaritzen arteko kontsulta prozedura artxibatu aurretik: kasuak.*

1. Europako fiskal delegatuak erregelamenduan ezartzen denaren arabera guztiz lotuta dauden delituen berri badauka, prozedura artxibatzeko, ezinbestekoa izango da Estatuko Fiskaltza Nagusiari kontsulta egitea, haren 39. artikuluan 3. apartatuarekin bat etorritik.

2. Gauza bera aplikatuko da Europako fiskal delegatuak Europar Batasunaren dirulaguntzen edo laguntzen eta Batasunaren aurrekontuko gastuen inguruko iruzur-delituak ikertu dituztenean eta Batasunaren finantza-interesei egindako kaltea edo egin ahal zaiena beste biktimei bati egindakoa edo egin ahal zaiena baino handiagoa ez den delituak ikertu dituztenean.

3. Aurreko bi apartatuarekin arautzen diren kasuetan, kontsulta egin ondoren Fiskaltzak bere gain hartu ahal izango du eskumena, eta prozedura eraldatzeko eskatuko du lege organiko honen 107. eta 108. artikuluetan ezartzen den bezala.

113. artikulua. *Ikerketa-prozedura berriz irekitzea.*

1. Prozedura artxibatzeko dekretuak, lege organiko honen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik erabakitakoak, ez du eragotziko prozedura berriz irekitzea, erregelamenduaren 39. artikuluan 2. apartatuaren arabera, artxibatzeko erabakia hartu denean jakin ez diren eta akzio penalarik ekitea justifikatzen duten egitate berriak azaltzen direnean.

2. Prozedura berriz irekitzeko dekretuan, ikerketari berriz ekitea justifikatzen duten egitateak eta inguruabarrak adieraziko dira, eta berehala jakinaraziko zaie prozeduran ikertu dituztenei eta delituaren biktimei, hura sekretupean jarri ez bada.

3. Prozedura berriz irekitzeko dekretua ikertutako pertsonak aurkara dezake, lege organiko honen 91. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

VI. TITULUA

Tarteko fasea: ahozko epaiketa prestatzea

I. KAPITULUA

Akusazio-idazkia

114. artikulua. *Akzio penala baliatzea.*

1. Baldin eta bere erregelamenduaren arabera dagozkion barne-izapideak egin ondoren Europako fiskal delegatuak uste badu ahozko epaiketa egin behar dela, berme-epaileari eskatuko dio, akusazio-idazkiaren bitartez.

2. Epaiketa irekitzeko eskaera jasotakoan, berme-epaileak akusazio-idazkia bidaliko die akusazio partikularrei eta auzi-jartzaile zibilari, halakorik egonez gero, bai eta pertsonatu ez diren biktimei ere. Jakinarazpen hori egiten denetik, hamar eguneko epealdian, pertsonatutako akusazioek edo pertsonatzen diren biktimek akusazio-idazkiak eta erreklamazio zibilak aurkeztu ahal izango dituzte.

3. Akusazio-idazkian, akzio penala noren aurka den adierazi ondoren, epaitzeko eskumena daukan auzitegian ahozko epaiketa hasteko eskatuko dute akusazioek, eta, gero, behin-behineko kalifikazioa eta froga-proposamena adieraziko dituzte.

115. artikulua. *Akusazioen behin-behineko kalifikazioa.*

1. Behin-behineko kalifikazioan honako hauek ezarri behar dira, zehatz eta zenbakituta:

1.a Ikerketan atzemandako egitate zigorgarriak.

Inolaz ere ezin da aipatu 27. eta 28. artikuluetan arautzen den agerraldian ikertutako pertsonari jakinarazi ez zaion egitaterik.

2.a Egitate horien legezko kalifikazioa, zigor-arloko zer arau-hauste diren zehaztuta.

3.a Akusatuak egitate horietan izan duen parte-hartzea (edo akusatuek izan dutena, bat baino gehiago badira).

4.a Delitua arintzen edo astuntzen duten edo erantzukizun kriminaletik salbuesten duten inguruabarrak.

5.a Akusatuak (edo akusatuek) kondenatuz gero jaso behar dituen (edo dituzten) zigor nagusiak eta osagarriak.

Puntu horietako bakoitzean, beste konklusio batzuk aurkez daitezke.

2. Behar denean, behin-behineko kalifikazioan egitate zigorgarrien eta haien ondorio gehigarrien erantzukizun zibilak erreklamatuko dira.

Hain zuzen ere, kalte-ordainaren zenbatekoa zehaztuko da, edo hura kalkulatzeko oinarriak, eta erantzukizun zibila nork duten ere zehaztu behar da eta erantzukizun hori nagusia edo subsidiarioa den argitu eta zer egitatek sortzen duen azaldu.

Halaber, atxikitako gauzen eta ondasunen entregari eta erabilerari buruzko gainerako alderdiak aipatu behar dira, eta prozesuaren kostuak ezartzei buruzkoak ere bai.

3. Europako fiskal delegatuaren behin-behineko kalifikazioan inolaz ere ezin da adierazi ezer pertsonatutako akusazio partikularrak edo auzi-jartzaile zibilak erantzukizun zibilaren inguruan erabaki behar dituzten gaiez.

4. Behin-behineko kalifikazioaren idazkian, agintaritza judizialaren eskumeneko kautelazko neurriak ezartzeko, aldatzeko edo kentzeko ere eska daitezke.

116. artikulua. *Froga proposatzea.*

1. Akusazio-idazkian ahozko epaiketarako froga proposatuko da, eta zehaztuko da dokumentu-erreklamazioa edo akusazioak eskatuta deklaratu behar duten perituen eta lekukoen zitazioak bulego judizialaren bidez egin behar diren.

2. Horrez gainera, lekukotza eman behar duten ikerketa-prozedurako partikularrak zehaztu behar dira, ahozko epaiketa egiteko agintzen bada ere.

3. Ahozko epaiketa egitea erabakitzeke inguruabarrak gertatzen badira, froga-iturri bat ziurtatzeko intzidentea ere eskatu ahal izango da, IV. tituluaren VI. kapituluan ezartzen denarekin bat etorritz.

4. Froga-proposamenean nahitaez agertu behar da frogaren egokitasunari eta erabilgarritasunari buruzko justifikazioa.

II. KAPITULUA

Defentsa-idazkia

117. artikulua. *Defentsa-idazkia.*

1. Ahozko epaiketa egiteko eskatu ondoren, Justizia Administrazioaren legelariak akusazio-idazkiak helaraziko dizkie akusatuak diren edo erantzukizun zibila eskatzen zaien pertsoneri, eta ikerketa-prozedura haien defentsen esku jarriko du, hamar eguneko epealdian akusazioen kontrako defentsa-idazkia aurkez dezaten.

Defentsak ez badu aurkezten bere idazkia epealdi horren barruan, akusazioen aurka dagoela pentsatuko da, eta prozedurak aurrera egingo du.

2. Defentsa-idazkian, hala badagokio, honako hauek adierazi behar dira, apartatu bereizietan:

- a) Egindako akusazioaren aurkaratzea, largesteko arrazoiak direla-eta egindakoa; behar izanez gero, atariko entzunaldia eskatu daiteke.
- b) Behin-behineko kalifikazioa.
- c) Ahozko epaiketarako proposatzen den froga.

3. Defentsa-idazkia aurkeztu ondoren, akusazioa aurkaratzen ez bada, ahozko epaiketa beste izapiderik egin gabe egiteko aginduko da.

118. artikulua. *Akusazioa aurkaratzea sustatzen duen idazkia.*

1. Aurkaratze-idazkian honako hauek adierazi behar dira:

- a) Prozedura largesteko eskatzeko arrazoa, haren oinarria, eta justifikatzen duten dokumentuak.
- b) Prozedura largestea bidezkoa dela justifikatzeko egin beharreko eta defentsak eskatutako eginbideak; frogatu behar da ikerketan proposatu zirela eta ez zirela egin.

2. Aurkaratze-idazkia aurkeztu ondoren, titulu honen III. kapituluan ezartzen dena aplikatuko da.

119. artikulua. *Defentsaren behin-behineko kalifikazioa.*

1. Akusatutako pertsonen eta erantzule zibilen defentsek, beren behin-behineko kalifikazioan, akusazio-idazkiaren ordena korrelatiboan adierazi behar dituzte beren behin-behineko konklusioak; beren aldeko egitateak zehaztu behar dituzte, eta argitu akusazio-idazkiaren gainerako edukiekin bat datozen edo haien aurka dauden.

Gainera, beste konklusio batzuk formulatu ditzakete.

2. Erantzule zibilen behin-behineko konklusioetan, erantzule horien aurka egindako izaera horretako eskaerak baino ezin dira aipatu.

120. artikulua. *Froga proposatzea.*

1. Defentsa-idazkian, ahozko epaiketarako eskatzen diren frogak proposatuko dira, eta zehaztuko da dokumentu-erreklamazioa edo akusazioak eskatuta deklaratu behar duten perituen eta lekukoaren zitazioak bulego judizialaren bidez egin behar diren ala ez.

2. Horrez gainera, lekukotza eman behar duten ikerketa-prozedurako partikularrak zehaztu behar dira, ahozko epaiketa egiteko agintzen bada ere.

3. Ahozko epaiketa egitea erabakitzeke inguruabarrak gertatzen badira, froga-iturri bat ziurtatzeko intzidentea ere eskatu ahal izango da, lege organiko honen IV. tituluaren VI. kapituluaren ezartzen denarekin bat etorritik.

4. Froga-proposamenean nahitaez agertu behar da frogaren egokitasunari eta erabilgarritasunari buruzko justifikazioa.

III. KAPITULUA

Atariko entzunaldia

121. artikulua. *Defentsa-idazkiak alderdiei helaraztea.*

1. Akusazioa aurkaratzen bada, Justizia Administrazioaren legelariak defentsa-idazkiak helaraziko dizkie gainerako alderdiei, bost eguneko epealdi luzaezinean idatziz alegazioak egin ditzaten egindako aurkaratzeei eta proposatutako eginbideei buruz.

2. Berme-epaileak ebazpena emango du largesteko eskaeren inguruan defentsak eskatutako eginbideei buruz, eta ikerketa-prozeduran eskatu diren eta egin ez diren horiek onartuko ditu bakar-bakarrik, baldin eta garrantzitsuak badira ahozko epaiketa egiteko.

3. Proposatutako eginbideak onartuz gero, atariko entzunaldian egingo dira, Prozedura Kriminalaren Legean ahozko epaiketako froga egiteko ezartzen den bezala.

122. artikulua. *Atariko entzunaldia.*

1. Atariko entzunaldia egintza bakarrean egin behar da, alderdi guztiak bertan direla. Atariko entzunaldia ez da etengo akusatutako pertsona ez agertzeagatik, zitazioa behar bezala egin bazaio, ez eta gainerako alderdietako bat bidezko arrazoirik azaldu gabe ez agertzeagatik ere.

Akusazio partikular bat ez bada agertzen eta horretarako arrazoi zuzenik ematen ez badu, akzioan atzera egin duela pentsatuko da, eta prozeduratik kanpo utziko da.

2. Eskatutako eginbideak egin ondoren, alderdi guztiak aurkaratzearen oinarriaz esaten dutena entzungo du berme-epaileak; horretan ari direla, galderak egin eta argibideak eskatu ahal izango dizkie, beharrezkotzat jotzen dituenak, noiznahi.

Nolanahi ere, berme-epaileak bere kabuz azter dezake ikerketa-prozedura.

3. Atariko entzunaldia egin ondoko hamar egunetan, epaileak dagokiona erabakiko du auto batean. Aurkaratzeko arrazoi bat baino gehiago aurkezten bada, denak batera ebartziko dira.

4. Alderdi guztiak entzun ondoren, interes informatibo handia egonez gero, epaileak entzunaldia publikoa izatea erabaki ahal izango du.

IV. KAPITULUA

Largespina

123. artikulua. *Largesteko arrazoiak.*

1. Atariko entzunaldia egin ondoren, baldin eta auzipetutako pertsona hilda badago edo, pertsona juridikoa izanik, likidatuta badago, prozedura largetsiko da kasu hauetan: akusazioaren oinarriko egitatea gertatu ez delako zantzu arrazionalak daudenean; egitatea zigor-arloko arau-haustea ez denean; zigor-arloko arau-haustea izanik, preskribatuta dagoenean; gauza epaituaren ondorioak sortzen dituen ebazpena ematen denean.

2. Akusazioa immunitatea daukan pertsona baten aurkakoa denean, prozedura largetsiko da, immunitatea kentzen ez bazaio.

3. Halaber, prozedura largetsiko da behar bezala frogatzen ez bada auzia eragin duen delitua egin dela edo ez badago akusatuak krimena egin duelako zantzu arrazionalik (kasu horretan, behin-behineko largespina erabakiko da).

4. Orobat, prozedura largetsiko da akusatuak erantzukizun kriminalik ez daukanean, segurtasun-neurriak ezarri behar direnean izan ezik, horrelakoetan epaiketak aurrera egitea erabakiko baita ondorio horietarako ez beste ezertarako.

124. artikulua. *Largesteko autoa.*

1. Largespena auto bidez erabakiko da.
2. Largespena osoa edo partziala izan daiteke, eta askea edo behin-behinekoa.

Partziala izanez gero, ahozko epaiketa hasteko autoa largespenak eragiten ez dien pertsoneri eta egitatei baino ez zaie aplikatuko.

3. Largespenaren ezespina ere auto bidez egingo da. Autoan erabakiaren oinarriak azaldu behar dira.

125. artikulua. *Errekurtsoak.*

1. Alderdiek apelazio-errekurtsoa aurkez dezakete prozedura largesteko autoaren aurka.

2. Largespen partzialaren aurkako apelazio-errekurtsoa jarritz gero, autoa etengo da, kasu honetan izan ezik: berme-epaileak uste badu, arrazoiak azalduta, ahozko epaiketatik baztertutako egitateak edo pertsonak bereizita epaitu daitezkeela.

126. artikulua. *Largespenaren ondorioak.*

1. Prozedura largestea erabakitakoan, ondoriorik gabe geldituko dira hartutako kautelazko neurriak.

2. Largespena irmoa denean, atxikitako legezko gauzak jabe legitimoei itzuliko zaizkie, eta legezkoak ez direnak agintaritza judizialak konfiskatuko ditu eta legeak agintzen duena egingo da haiekin.

V. KAPITULUA

Ahozko epaiketa hastea

127. artikulua. *Ahozko epaiketa hasteko autoa.*

1. Ahozko epaiketa hasteko autoan honako hauek zehaztuko dira:

- a) Zer organok daukan epaitzeko eskumena.
- b) Zer egitate epaitu daitezkeen.

Egitate hauek epaitu daitezke: akusazio-idazkian aipatzen direnetan epaitze-prozeduratik berariaz baztertu ez direnak.

c) Zer pertsona epaituko den akusatu edo erantzule zibil modura.

2. Ahozko epaiketa hasteko autoaren aurka ezin da aurkeztu errekurtsorik. Salbuespena: alderdiek apelazio-errekurtsoa aurkez dezakete kautelazko neurriez ezartzen denaren aurka.

128. artikulua. *Ahozko epaiketaren espedienterako lekukotzak eta epatzea.*

1. Ahozko epaiketa hasteko autoan, agindua emango da ebazpenaren eta alderdien behin-behineko kalifikazioen lekukotza jasotzeko.

2. Alderdi batek eskatuz gero, honako hauen lekukotza ere jasoko da:

a) Froga-iturriak ziurtatzeko eginbideen aktak, IV. tituluaren VI. kapituluan xedatzen den bezala eginak.

b) Berriz egin ezin diren eginbideen aktak, ahozko epaiketan berretsi behar direnak.

c) Ikerketa-prozeduran dauden dokumentuak eta txostenak, dokumentu-froga izateko proposatu direnak.

Dokumentuen lekukotzan, ahozko epaiketean erabiliko diren eginbideak, dokumentuak edo txostenak bilduta dauden ikus-entzunezko euskarriak edo euskarri informatikoak ere sartuko dira.

3. Aurreko lekukotza horiekin espediente bat prestatuko da ahozko epaiketarako, eta Justizia Administrazioaren legelariak epaitzeko eskumena daukan auzitegira bidaliko du, delituaren gauzeekin eta tresnekin eta gainerako konbikzio-piezekin batera.

Lekukotzak jaso beharrean espediente elektronikoa jarri ahal izango da eskuragarri, erabiltzen hasita egonez gero.

129. artikulua. *Ahozko epaiketean deklarazio eta eginbide polizialak debekatzea.*

Ahozko epaiketarako inolaz ere ezin izango da jaso lekukoek ikerketa-prozeduran egindako adierazpenen ez perituek ikerketa-prozeduran emandako ahozko azalpenen lekukotzarik edo ikerketa-prozedurari erantsitako lekukotzarik, aurreko artikuluan aipatzen direnez besterik.

Halaber, aurreko artikuluan aipatzen diren aktak ez beste jarduketa polizial guztiei buruzko eginbideen lekukotzarik ere ezin izango da jaso.

130. artikulua. *Alderdiek ahozko epaiketean erabiltzeko lekukotzak.*

1. Alderdiek noiznahi eska ditzakete ahozko epaiketean erabili nahi dituzten kopiak. Horretarako, ikerketa-prozeduran egindako edo hari erantsitako deklarazio guztien lekukotzak eman dakizkieke, ahozko epaiketean erabili nahi badituzte ere.

2. Lekuko batek ahozko epaiketean egindako deklarazioa ez badator bat funtsean ikerketa-prozeduran egin edo aurkeztutakoarekin, alderdiek eskatu ahal izango dute irakur dadila, osorik edo zati bat, baina, horretarako, haren lekukotza aurkeztu beharko da nahitaez.

Irakurri ondoren auzitegiko buruak lekukoari eskatuko dio azaldu dezala bi deklarazioen arteko desberdintasuna edo kontraesana.

131. artikulua. *Alderdiei epaiketaren ardurak daukan auzitegira deitzea.*

1. Justizia Administrazioaren legelariak alderdiei deituko die ahozko epaiketa egiteko eskumena daukan epailearen aurrera edo auzitegira agertu daitezen hamabost egun igaro baino lehen. Epaiketa Prozedura Kriminalaren Legean arautzen den prozedura laburtuaren arabera egingo da.

2. Epaitzeko organora deitu aurretik, alderdiek noiznahi eska diezaiokete berme-epaileari froga-iturri bat ziurtatzeko lege organiko honetan arautzen diren kasuetarako. Horretarako intzidentea IV. tituluaren VI. kapituluan ezartzen den bezala egingo da.

3. Akusatua zitazio pertsonala egin zaion arren —edo zitazioa etxean edo 27.2 artikuluan aipatzen den pertsonaren bidez jaso duen arren— agertzen ez bada eta ez badu horretarako bidezko arrazoirik ematen, hala ere, ahozko epaiketa ez da etengo, baldin eta auzitegiak uste badu, Europako fiskal delegatuak edo alderdi akusatzaileak eskatuta eta defentsa entzun ondoren, epaitzeko behar beste elementu daudela, betiere eskatutako zigorra bi urtean baino gehiagoan askatasunaz gabetzea ez denean edo, bestelako zigorra izanez gero, sei urtetik gorakoa ez denean.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Arau-aipamenak.*

Prozedura Kriminalaren Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan agintaritza judiziala edo Fiskaltza aipatzen denean, pentsatu behar da testua Europako fiskal delegatuaz ari dela Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduak ematen dizkion egiteko guztiei dagokienez.

Bigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren araubidea.*

Europako fiskal delegatuak Espainiako arlo honetako legediaren arabera karrera fiskaleko eta karrerako judizialeko kideei dagokien Gizarte Segurantzaren araubidean egongo dira.

Karreran 2011 baino lehen sartu direnak nahitaez jarraituko dute mutualista gisa alta emanda, Mutualismo Judizialaren Erregelamenduaren 3. artikulua onorioetarako (erregelamendu hori uztailaren 15eko 1026/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

Xedapen iragankor bakarra. *Araubide iragankorra.*

Europako fiskal nagusiak eskaturik Batzordeak erabaki baten bidez deliberatzen badu Europako Fiskaltzak bere gain hartzea Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduak emandako egitekoak, ordutik aurrera, hura indarrean jarriz gero egindako beren eskumeneko delituak ikertzen ari diren fiskaltzak eta organo judizialek lege organiko honen 19. artikuluan xedatzen denarekin bat etorri jardungo dute, baldin eta prozeduran akusazio formalik aurkeztu ez bada artean. Nolanahi ere, erregelamendua indarrean jarri ondoren Europako Fiskaltzaren eskumeneko esparruan izandako egitateen berri duten agintaritzek, agentziek eta erakundeek horien berri eman beharko diote fiskaltza horri.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzea.*

Abenduaren 30eko 50/1981 Legea, Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duena, honela aldatzen da:

Bat. Aldatu egiten da hirugarren artikulua 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4. Delituen ondoriozko akzio penal eta zibilak erabiltzea; nolana ere, Europako Fiskaltzak eskumena dauka akzio penala abian jartzeko eta ahozko epaiketa eskatzeko Batasunaren finantza-interesen aurka egiten diren eta bere araudiarekin bat etorri bere gain hartzen dituen delituengatik, edo beste batzuek abian jarritakoak aurkaratzeko, bidezkoa denean».

Bi. Laugarren artikuluari Bat bis apartatua gehitzen zaio; hona testua:

«Bat bis. Europako Fiskaltzak esku hartu duen auzietan emandako ebazpenak jakinarazteko eskatzea. Eskatzen zaionean, harekin lankidetzan jardun beharko du bere gain hartzen dituen ikerketa guztietan».

Hiru. Hogeita bat bis artikulua gehitzen da; hona testua:

«Europako Fiskaltza eta Espainiako Fiskaltza ez badaude ados Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduaren 25.6 artikuluan aipatzen diren eskudantziez, behin betiko erabakia Estatuko Fiskaltza Nagusiaren titularrak emango du, Salako Fiskalen Batzordea entzun ondoren, lege honen hamabosgarren artikuluan arautzen den bezala».

Lau. Bi paragrafo gehitzen zaizkio lehen xedapen gehigarriari; hona testua:

«Europako fiskal izendatzen duten Fiskaltzako kidea zerbitzu berezietan egongo da, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak 351.a) artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri.

Europako Fiskalen Kidegoak Europako fiskal delegatu izendatzen dituen fiskalak zerbitzu berezietan egongo dira, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak 351.a) artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri, izendatzen dituztenetik kargua utzi arte, Europako Fiskaltza sortzeko lankidetzan indartua ezartzen duen

Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamendua aplikatzeko lege organikoak ezartzen duenarekin bat etorritz».

Azken xedapenetako bigarrena. *Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldaketa hauek egiten zaizkio Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoari:

Bat. Aldatu egiten da 23. artikulua 2. apartatuaren b) letra, eta honela idatzita gelditzen da:

«b) Laidotuak edo Fiskaltzak Espainiako auzitegiaren kereila jartzea. Baldintza hori betetzat joko da Europako Fiskaltzaren eskumeneko delituei dagokienez hark bere eskumena erabiltzen duenean».

Bi. 57. artikulua 1. apartatuaren 2. eta 3. zenbakiak aldatzen dira, eta 3. apartatua eransten zaio; hona testuak:

«2.a Kargu hauen aurkako kausen eta autonomia-estatuetan zehazten diren kausen instrukzioa eta auzipetzea: Gobernuko presidentea, Kongresuko eta Senatuko presidentea, Auzitegi Gorenko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea, Konstituzio Auzitegiako presidentea, Gobernuko kideak, diputatuak eta senatariak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalak, Konstituzio Auzitegiako eta Auzitegi Gorenko magistratuak, Auzitegi Nazionaleko presidentea eta Auzitegi Nazionaleko sala guztietako eta justizia-uzitegi nagusietako presidentea, Estatuaren fiskal nagusia, Auzitegi Gorenko saletako fiskalak, Europako fiskala, Kontu Auzitegiako presidentea eta kontseilariak, Estatu Kontseiluko presidentea eta kontseilariak, Herriaren Defendatzailea.

3.a Auzitegi Nazionaleko eta justizia-uzitegi nagusietako magistratuen eta Europako fiskal delegatuen aurkako kausen instrukzioa eta auzipetzea».

«3. Europako Fiskaltzaren eskumeneko delituengatik 1. apartatuaren 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren pertsonen aurka irekitzen diren auzietan, salako kideetako bat berme-epaile izendatuko da, aurrez zehaztutako txanda baten arabera; hark ez du parte hartuko epaketan».

Hiru. Bigarren paragrafoa gehitzen zaio 61. artikulua 2. apartatuari; hona testua:

«Europako Fiskaltzaren eskumeneko delituengatik irekitzen diren auzietan, salako kideetako bat berme-epaile izendatuko da, aurrez zehaztutako txanda baten arabera; hark ez du parte hartuko epaketan».

Lau. Letra bat gehitzen zaio 65. artikulua 1. zenbakiari, f) letra, eta 5. zenbakia aldatzen da. Hona testu berriak:

«f) Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduaren 22. eta 25. artikuluetan Europako Fiskaltzari esleitutako delituak, hark bere eskumena erabiltzea erabakitzen duenean».

«5.a Zigor-arloko epaitegi zentralek, instrukzioko epaitegi zentralek (are Europako Fiskaltza arduratzen den delituetan berme-epaile gisa aritzen direnean ere) eta Adingabeen Epaitegi Zentralak ematen dituzten epaien eta bestelako ebazpenen aurka legeak zehaztutako errekursoak».

Bost. Bigarren paragrafoa gehitzen zaio 73. artikulua 4. apartatuari; hona testua:

«Europako Fiskaltzaren eskumeneko delituengatik irekitzen diren auzietan, salako kideetako bat berme-epaile izendatuko da, aurrez zehaztutako txanda baten arabera; hark ez du parte hartuko epaketan».

Sei. Bigarren paragrafoa eta hirugarren paragrafoa gehitzen zaizkio 88. artikuluari; hona:

«Instrukzioko epaitegi zentralak berme-epaile gisa arduratuko dira Europako Fiskaltzaren eskaerez kasu hauetan: kautelazko neurri pertsonalak eskatzen dituenean, agintaritzak judizialak bakarrik mugatu ditzakeen oinarriko eskubideak mugatzea dakarten egintzak baimentzeko eskatzen duenean, eta legean berariaz ezartzen diren gainerako kasu guztietan.

Halaber, Europako fiskal delegatuen dekretuen kontra egiteko legeak arautzen dituen aurkaratzeez ere arduratuko dira».

Zazpi. 348 bis artikuluari 6. zenbakia gehitzen zaio; hona testua:

«6. Europako Fiskaltzako fiskala».

Zortzi. Aldatu egiten dira 351. artikulua a) eta c) letrak, eta honela geratzen dira:

«a) Kargu hauetarako edo autonomia-erkidegoetako organo baliokideetako titular edo bokal izendatzen dituztenean: Auzitegi Goreneko presidente, Estatuaren fiskal nagusi, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokal, Konstituzio Auzitegiko magistratu, Herriaren Defendatzaile edo haren alboko, Kontuen Auzitegiko aholkulari, Estatu Kontseiluko kide, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko presidente edo bokal, Datuak Babesteko Bulegoaren zuzendari, Europako fiskal edo nazioarteko justizia-auzitegi goreneta kide, edo autonomia-erkidegoetako organo baliokideetako titular edo kide».

«c) Nazioarteko edo estatuaz gaindiko antolakundearen zerbitzura dauden funtzionario bihurtzen direnean edo Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduak —Europako Fiskaltza sortzeko lankidetzaren indartua ezartzen duenak— eta erregelamendu hori aplikatzeko lege organikoak ezartzen dutenarekin bat etorriz Europako fiskal delegatu izendatzen dituztenean. Beren agintaldian Europako Fiskaltzaren printzipio gidarien arabera jardungo dute, eta ez dituzte edukiko jurisdikzio-ahala erabiltzeak berekin dakartzan ahalmenak».

Bederatzi. Aldatu egiten da VII. liburuaren izenburua, eta honela idatzita geratzen da:

«VII. LIBURUA

Fiskaltza, Europako Fiskaltza, eta Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritzen diren gainerako pertsonak eta erakundeak»

Hamar. Aldatu egiten da VII. liburuaren II. tituluaren izenburua, eta honela geratzen da idatzita:

«I. TITULUA

Fiskaltza eta Europako Fiskaltza»

Hamaika. 541 bis artikulua gehitzen da; hona testua:

«Europako Fiskaltzak ikertu behar du eta gauzatu behar du akzio penala lehen auzialdiko eta errekurtsio-bideko prozedura-organoen eskudunean Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dien delituen bat —Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduari bat etorriz bere

eskumena benetan erabiltzen den delituren bat— egiten dutenen eta horiekin batera ari diren gainerakoen kontra».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldatu egiten da Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoaren 1. artikulua 3. apartatua, eta honela gelditzen da idatzita:

«3. Zinpeko epaimahaiaren epaketak honako hauetan baino ez dira egingo: Probintziako Auzitegian eta, behar denean, akusatuaren foruaren arabera eskumena daukan auzitegietan. Nolanahi ere, zinpeko epaimahaiaren eskumenetik kanpo daude Auzitegi Nazionalak epaitu behar dituen delituak eta Europako Fiskaltzak bereganatutako eskumeneko delituak».

Azken xedapenetako laugarrena. *Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldatu egiten da Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa; hona aldaketak:

Bat. Aldatu egiten da 24. artikulua 1. apartatua, eta honela gelditzen da idatzita:

«1. Zigor-ondorioetarako, agintarizat hartuko da bera bakarrik edo korporazio, auzitegi nahiz kide anitzeko organo baten kide gisa agintea izan edo berezko jurisdikzioan jarduten duena. Edozein modutan, Diputatuen Kongresuko, Senatuko, autonomia-erkidegoetako legebiltzarretako eta Europako Parlamentuko kideak agintarizat hartuko dira. Fiskaltzako funtzionarioak eta Europako Fiskaltzako fiskalak ere agintarizat hartuko dira».

Bi. Legearen 132. artikulua 4. apartatua gehitzen zaio; hona:

«4. Ikertzeko ardua Europako Fiskaltzak bereganatzen duen prozeduretan, preskripzioa kasu hauetan etengo da:

- a) Ikerketaren xedea pertsona jakina denean, baldin eta aurreko apartatuaren arabera ongi identifikatuta bada eta hori ezartzen bada dekretu arrazoitu batean.
- b) Europako Fiskaltzan kereila edo salaketa aurkezten denean, baldin eta horren bidez pertsona jakin bati egozten bazaio delitua izan daitekeen egitate batean parte hartu duela, eta artikulua honen 2. apartatuaren 2. araua aplikatu ahal bada».

Hiru. 306. artikulua lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Norbaitek egitez edo ez-egitez Europar Batasunaren aurrekontu orokorreari edo Europar Batasunak administraturiko beste aurrekontu batzuei berrogeita hamar mila euro baino gehiagoren iruzurra egiten badie ordaindu beharreko kopuruak ordaintzea saihestuz (305. artikulua 3. apartatua zehaztutako kasuak ez dira sartzen hemen) edo lortutako funtsei dagokienaz bestelako aplikazioa emanez (308. artikulua zehaztutako kasuak ez dira sartzen hemen) edo funtsak bidegabe lortuz, funtsak emateko baldintzak faltsutu dituelako edo funtsak ez emateko baldintzak ezkutatu dituelako, orduan, pertsona horri zigor hauek ezarriko zaizkio: urtebetetik bost urte arteko espetxe-zigorra, aipatutako kopurua halako sei arteko isuna, eta dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea eta zerga-onurak edo -pizgarriak nahiz Gizarte Segurantzako onurak eta pizgarriak izateko eskubidea galtzea hiru urtetik sei urte arte».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzea.*

Xedapen gehigarri bat gehitzen zaio Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legeari, zazpigarrena; hona izenburua eta testua:

«Zazpigarren xedapen gehigarria. *Europako fiskal delegatuen aipamenak.*

1. Lege honetan agintaritzak judizialak eta Fiskaltza aipatzen direnean, ulertu behar da testua Europako fiskal delegatuez ari dela Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko (EB) 2017/1939 Erregelamenduak —Europako Fiskaltza sortzeko lankidetzak indartua ezartzen duenak— eta erregelamendu hori aplikatzeko lege organikoak ematen dizkieten egitekoei dagokienez.

2. Europako fiskal delegatuak, 35. artikulua 1. apartatuaren ondorioetarako, agintari eskudunak izango dira erregelamendu horrek ematen dizkien eskumenak erabiltzen dituzten prozeduren esparruan».

Azken xedapenetako seigarrena. *Lege arruntaren izaera duten manuak.*

Manu hauek lege arruntaren izaerakoak dira:

- I. titulua (7., 8. eta 9. artikulua izan ezik).
- II. titulua.
- III. titulua (26., 46., 47. eta 48. artikulua izan ezik).
- IV. tituluaren 67-70 bitarteko artikulua, 73-76 bitartekoak, 79-81 bitartekoak, 87. eta 88. artikulua.
- V. titulua.
- VI. titulua.
- Bigarren xedapen gehigarria.
- Xedapen iragankor bakarra.
- Azken xedapenetako lehenengoa eta bosgarrena.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege organiko hau Konstituzioaren 149.1 artikulua 3., 5. eta 6. puntuen babesean ematen da; puntu horietan nazioarteko harremanen, justizia-administrazioaren eta prozesu-legediaren arloko eskumen eskusiboa ematen zaio, hurrenez hurren, Estatuari.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Ordezko araubidea.*

Lege organiko honetan arautzen ez den guztirako Prozedura Kriminalaren Legeak xedatzen duena aplikatuko da.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege organiko hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Beraz,

Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2021eko uztailaren 1ean.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN